BESTELAKO XEDAPENAK

INGURUMEN ETA LURRALDE ANTOLAMENDU SAILA

1348

EBAZPENA, 2008ko apirilaren 30ekoa, Ingurumen sailburuordearena, San Markos-eko Mankomunitateari ingurumen-baimen bateratua ematen diona, Donostia-San Sebastiángo udalerrian sustatu duen hondakin geldo eta ez-arriskutsuen zabortegirako.

AURREKARIAK

2006ko abenduaren 21ean, San Markos-eko Mankomunitateak Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailari ingurumeneko baimen bateratua ematea eskatu zion, Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzko uztailaren 1eko 16/2006 Legeak xedatutakoaren arabera, Donostiako udalerrian (Gipuzkoa) hondakin geldo eta ez-arriskutsuen zabortegirako. Eskaerarekin batera proiektuak Donostiako hirigintza-plangintzarekin duen bateragarritasunari buruzko 2006ko uztailaren 3ko udal-txostena bidali du sustatzaileak, eta ondorengo agiri teknikoak:

● «Aizmendiko (Gipuzkoa) zabortegiaren ingurumeneko baimen bateratua eskatzeko 2050017. proiektua», 2006-11-24koa. 0. liburukia. Proiektu teknikoa (I, II, III, IV, V. eranskinak eta euskarri digitala).

● «Aizmendiko (Gipuzkoa) zabortegiaren ingurumeneko baimen bateratua eskatzeko 2050017. proiektua», 2006-11-24koa. 0. liburukia. Proiektu teknikoa (VI, VII, VIII, IX, X, XI, XII, XIII, XIV, XV, XVI. eranskinak eta planoak).

● «Aizmendiko (Gipuzkoa) zabortegiaren ingurumeneko baimen bateratua eskatzeko 2050017. proiektua», 2006-11-24koa. 1. liburukia. Eraikitze-proiektua (memoria, eranskinak, agiria eta aurrekontua).

● «Aizmendiko (Gipuzkoa) zabortegiaren ingurumeneko baimen bateratua eskatzeko 2050017. proiektua», 2006-11-24koa. 1. liburukia. Eraikitze-proiektua (planoak).

● «Aizmendiko (Gipuzkoa) zabortegiaren ingurumeneko baimen bateratua eskatzeko 2050017. proiektua», 2006-11-24koa. 2. liburukia-Kalitate-kontrol orokorra; 3. liburukia-Geosintetikoen kalitate-kontrola; 4. liburukia-Ingurumena zaintzeko programa; 6. liburukia-Laburpen ez-teknikoa.

Erreferentziako baimena eskatzeko unean, San Markos-eko Mankomunitateak, besteak beste, jarduerarako 1994ko abenduaren 19ko baimena zuen, eta zabaltzeko 1996ko abuztuaren 22ko baimena. Baimen hori Ergobiako auzoko hondakin solidoen zabortegirako eman zen. Era berean, enpresa sustatzaileak Aizmendin hondakin geldoen zabortegia instalatzeko 2005eko otsailaren 7ko baimena zuen, eta Urumea Ibaiko Kolektorearen Erabiltzaileen Mankomunitatearen kolektorera isurketak egiteko baimena, hondakin ez-arriskutsuak kudeatzeari eta Urumea Ibaiko Kolektorearen Erabiltzaileen Mankomunitatearen kolektorera isurketak egiteari buruz indarrean dagoen araudian xedatutakoari jarraituz.

2007ko urtarrilaren 30ean, Ingurumenaren Kalitatearen Zuzendaritzak prozeduran esku-hartzea duten hainbat organori txostenak eskatu zizkion, Ingurumen Organoaren bidez proiektua jendaurrean jartzeko izapidea adosteari dagokionez: Donostiako Udalari, Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailaren Gipuzkoako Osasun Publikoaren Zuzendariordetzari, Gipuzkoako Ur Kontsortzioari, eta Añarbeko Uren Mankomunitateari.

2007ko urriaren 31n, Ingurumen Organoak agiri osagarriak eskatu zizkion sustatzaileari; espedientea 2007ko azaroaren 7an osatu zen.

Aurkeztutako agiriak nahikoa zirela egiaztatu ondoren, Ingurumen sailburuordeak 2007ko azaroaren 14an emandako ebazpenaren bidez, jendaurrean jarri ziren 30 egun baliodunen epean, San Markos-eko Mankomunitateak sustatutako proiektua egoki iritzitako alegazioak aurkezteko, eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen, bietan 2007ko abenduaren 3an. Era berean, Euskal Autonomia Erkidegoko bi egunkaritan argitaratu zen 2007ko abenduaren 2an, eta ondoko auzokide bakoitzari jakinarazpena bidali zitzaion. Jendaurrean jartzeko izapidea amaitu ondoren, horri buruzko inolako alegaziorik ez dagoela egiaztatu da.

Uztailaren 1eko 16/2002 Legearen 17. eta 18. artikuluetan xedatutakoa betez, 2008ko urtarrilaren 14an Ingurumenaren Kalitatearen Zuzendaritzak txostenak eskatu zizkien Donostiako Udalari, Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailaren Gipuzkoako Osasun Publikoaren Zuzendariordetzari eta Gipuzkoako Ur Kontsortzioari, eta 2008ko urtarrilaren 28an Añarbeko Uren Mankomunitateari, espedientean ageri den emaitza jasoz.

2008ko apirilaren 16an, Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzko uztailaren 1eko 16/2002 Legearen 20. artikuluan xedatutakoa betez, espediente osoa San Markos-eko Mankomunitatearen esku utzi zen, Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailak egindako ebazpen-proposamena gehituta.

2008ko apirilaren 29an sustatzailearen jakinarazpena jaso zen. Jakinarazpen horretan hainbat ohar egiten ziren Ingurumeneko Baimen Bateratuaren ebazpen-proposamenari buruz.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Uztailaren 1eko 16/2002 Legearen 1. artikuluan xedatutakoaren arabera, lege horren xedea da atmosferaren, uraren eta lurzoruaren kutsadura saihestea edo, hori ezinezkoa denean, kutsadura hori gutxitu eta kontrolatzea; eta hori lortzeko, ingurumen osoaren babes-maila altua helburutzat harturik, kutsadura prebenitu eta kontrolatzeko sistema integratu bat ezartzea.

Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzko uztailaren 1eko 16/2002 Legea garatu eta burutzeko Erregelamendua onartzen duen apirilaren 20ko 509/2007 Errege Dekretuaren 3. artikuluan xedatutakoarekin bat eginez, baimen honetan sartzen dira ekoizpen-elementu eta -lerro guztiak; 16/2002 Legearen 1. eranskinean aipatzen ez diren arren, lege hori aplikatu beharreko esparruko jardueren instalazioetan gauzatzen dira eta jarduera horrekin zerikusia dute.

16/2002 Legearen 9. artikuluak ezartzen duena betez, ingurumeneko baimen bateratua behar da 1. eranskinean aipatzen diren jardueraren bat garatzen duten instalazioak eraiki, muntatu, ustiatu, lekuz aldatu nahiz funtsezko beste aldaketaren bat egiteko. 11. artikuluaren arabera, baimen honen oinarrizko helburua baldintzak ezartzea da, araua aplikatzeko den instalazio guztietan betetzen dela bermatzeko; horretarako, baimena ematen parte hartuko duten Herri Administrazio guztien artean koordinatuko den prozedura bat erabili nahi da, izapideak erraztu eta partikularrek ordaindu beharreko kargak gutxitzearren. Era berean, indarrean dagoen legerian aurreikusitako ingurumen-baimen guztiak administrazio-egintza bakar batean bildu nahi dira. San Markos-eko Mankomunitatearen kasuan, baimen hauek guztiak behar ditu: hondakin ez-arriskutsuak zabortegian utzita ezabatuz kudeatzeko baimena, hondakin arriskutsuak sortzekoa, saneamendu-kolektorera isurtzekoa eta, ingurumen-izaerako beste zehaztapenen artean, atmosferaren kutsadurari dagozkion baimenak eta lurzoruaren kutsadura prebenitu eta zuzentzeari dagozkio-

nak. Gainera, espedientean beste administrazio eta erakunde eskudun batzuek ere parte hartu dutela adierazi behar da, aginduzko txostenak igorriz.

16/2002 Legearen 29. artikuluan xedatutakoaren arabera, ingurumeneko baimen bateratua emateko prozedurak jarduera sailkatuetarako udal-lizentziaren prozedura ordezkatzen du, jarduera gogaikarri, osasungaitz, kaltegarri eta arriskutsuei buruzko azaroaren 30eko 2414/1961 Dekretuan aurreikusten zena; ez du ordezkatzen, ordea, udal-agintaritzak emango duen behin betiko ebazpena. Ondorio horietarako, ingurumeneko baimen bateratua udal agintarientzat lotesle a izango da baldin eta lizentzia ukatzeko bada edota neurri zuzentzaileak ezartzeko; baita goiko arauaren 22. artikuluan jasotako ingurumen alderdiei buruzko aipamena egiten bada ere. 29. artikulu horretan aipatzen denez, goiko guztiak ez ditu kaltetuko autonomia-erkidego bakoitzean jarduera sailkatuei aplikatzekoak diren gainerako arauak. Transkribatutako aginduak aplikatuz, San Markos-eko Mankomunitateari dagokion ingurumeneko baimen bateratuaren prozedurak barne hartu ditu Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurumena Babesteko otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorrean aurreikusitako izapideak; horiez gain, espedientean sartu dira Donostiako Udalaren eta Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailaren txostenak.

Azkenik, instalazioak gehienez isur ditzakeen gai kutsagarrien balioak eta ingurumena, oro har, ahalik eta gehien babesteko ustiapenerako ezarriko zaizkion beste baldintza batzuk zehazte aldera, ebazpen hau egiterakoan kontuan izan dira teknika erabilgarri onenen erabilera eta hondakinak zabortegian utzita hondakinak ezabatzea arautzen duen abenduaren 27ko 1481/2001 Errege Dekretuak ezarritako neurriak eta baldintzak. Gainera, arloko araudiei dagokienez, kasu honetan bereziki aplikatzekoa da hondakinei buruzko apirilaren 21eko 10/1998 Legea.

Espedienteko txostenak aztertu ondoren, ebazpen-proposamena sinatu eta San Markos-eko Mankomunitateak sustatutako proiektuak bete beharreko baldintzak ezarri ziren.

Goian adierazitako izapideak amaitu dira, eta Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzko uztailaren 1eko 16/2002 Legearen 20. artikuluan jasotzen den entzunaldi-izapidea bete da. Ildo horretan, kontuan hartu behar da organo honi atxikitako zerbitzu teknikoek sustatzaileak izapide honetan egindako oharrak aztertu dituztela, eta guztiak kontuan hartu direla ebazpen hau lantzeko orduan.

Organo hau da ingurumeneko baimen bateratu hau emateko eskuduna, aipatutako legearen 13. artikuluan eta Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailaren egitura organikoa ezartzen duen urriaren 25eko 340/2005 Dekretuaren 9. artikuluan ezarritakoari jarraituz.

Ondorengo araudia ikusi da: Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailak 2008ko apirilaren 15ean emandako ebazpen-proposamena; Euskal Herriko Ingurumena Babesteari buruzko otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorra; Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzko uztailaren 1eko 16/2002 Legea; Ingurumenaren gaineko Eraginaren Ebaluazioari buruzko ekainaren 28ko 1302/1986 Legegintzako Errege Dekretua, maiatzaren 8ko 6/2001 Legeak aldatu zuena; Legea burutzeko araudia onartzen duen irailaren 30eko 1131/1988 Errege Dekretua; Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailaren egitura organikoa ezartzen duen urriaren 25eko 340/2005 Dekretua; Herri Administrazioen Araubide Juridikoa eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legea, eta aplikatzeko den gainerako araudia, hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Egoitza soziala Donostiako udalerriko Vitoria-Gasteiz kaleko 10. zenbakian eta IFK: P 20000150 duen San Markos-eko Mankomunitateari ingurumeneko baimen bateratua ema-

tea Donostiako udalerriko Basozabal auzoko hondakin geldo eta ez-arriskutsuen zabortegirako (Aizmendiko zabortegia).

Jarduera Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzko uztailaren 1eko 16/2002 Legearen 1. eranskineko 5.4 kategorian sartuta dago, «Mota guztietako hondakinen zabortegiak, egunean 10 tonatik gora hartzen dituztenak, edo guztira 25.000 tonatik gorako edukiera dutenak, hondakin geldoen zabortegiak izan ezik».

San Markos-eko Mankomunitateak sustatutako jarduera hondakin geldo eta ez-arriskutsuen zabortegia ustiatzea da.

Aizmendiko zabortegia Donostiako Basozabal bidean dago, inguruan etxebizitza isolatuak dituen landa-ingurune batean. Begiristain doktorea pasealekua eta GI 3401 errepidea lotzen dituen biribilgunetik abiatzen den Goiaztxiki bidetik sartzen da bertara.

Zabortegia kokatzen den guneko gutxi gorabeherako koordenatuak hauek dira:

- X= 583.909.
- Y= 4.792.656.

Hondakin geldoen zabortegiak (A mota) hondakin ez-arriskutsuen gelaxka bat izango du (B1b motakoa, Kontseiluaren 2003/33/EE Erabakiari jarraiki).

Zabortegiak instalazio eta ekipamendu hauek ditu:

- Perimetro-itxitura eta sarbideak.
- Harrera-bulegoa, laborategia, higiene- eta ongizate-instalazioak eta biltegia dituen eraikina.
- Tonaje handiko baskula.
- Lixibiatuak kontrolatzeko etxola eta ur-ponparen etxola.
- Materialak gaika bereizteko eremua.
- Ur-berrerabilpena duen gurpil-garbitokia eta solido-dekantagailua.
- 3.000 l-ko gasolio-andela.
- Suteak itzaltzeko sistema isurketa-eremuan (detekzio-ekipoa eta Pegaso 1121 autoponpa-kamioia).

Jabetza osatzen duten orubeen azalera 93.216 m^2-koa da, eta 2.500 m^2 zola asfaltatu batean dauden azpiegitura osagarri batzuetarako dira.

Isuri-ontziaren edukiera erabilgarria 863.647 m^3 ingurukoa da (zabaldu gabe) eta 1.147.605 m^3-koa (zabalduta), eta erabilera-epea 19,1 urtekoa (zabaldu gabe) eta 25,4 urtekoa (zabalduta).

Zabortegia iragazgaizteko soluzioa isuri-ontziaren alboetan diseinatuko da. Halaber, betetze-planaren diseinuan kontuan hartu behar da aurrealdearen behin betiko zigilatzea garaiera handitzen den neurrian.

Hondakin ez-arriskutsuen gelaxkaren oinarriaren zigilatzearen zati handiena elementu geosintetikoez eraikita dago.

Zabortegira iristen diren hondakinak sarrerako eta pisatzeko kontrolak igaroko dituzte, eta 2006ko abenduko ingurumeneko baimen bateratua eskatzeko proiektuan, zehazki aurkeztutako proiektu teknikoaren 3.9.1.2 puntuan jasota dagoen onarpen-prozedura aplikatuko zaie.

Baliotu daitezkeen frakzioak osatzen dituzten edo dituzten hondakinek (papera eta kartoia, zura, plastikoak, metal ferrikoak, metal ez-ferrikoak) aurretiazko tratamendua jasan beharko dute, frakzio horien gaikako bereizketaren bidez. Frakzio horiek xede horretarako ezarritako edukiontzietan utziko dira, ondoren baliotu daitezen.

Ustiapen-metodoa kamioia irauliz isurketa egin eta ondoren, banatu, hedatu eta trinkotzean oinarritzen da.

Zabortegiak ur garbiak biltzeko eta drainatzeko sistema bat izango du, jariatze-ur garbi guztiak biltzeko diseinatutakoa (perimetro-kanala, barneko drainatze-arekak eta azpiazaleko uren drainatzea). Kanalen eta hodi itxien dimentsionatzea.

Geldoen zabortegiak lixibiatuak drainatzeko sare bat du, «Y» formako lubaki batez osatua eta kareharrizko lubetaz egina, arrain-hezur formako drainak eta perimetro-drainatzeak biltzen dituena, azken horiek kareharrizko balastozkoak. Drainatze nagusi hori zabortegiaren azpitik igarotzen da eta atxikipen-lubetara eramaten ditu lixibiatuak, bertan emari-neurgailu batez kontrolatzeko eta kolektorera isurtzeko.

Hondakin ez-arriskutsuen gelaxkan sortutako lixibiatuak isuri-ontzi barruko bilketa-sistema baten bidez bilduko dira, eta harbetatik uretan behera eta hondakin-eremutik kanpo dagoen kontrol-kutxeta batera eramango dira. Kontrol-kutxetatik zabortegiaren behealdeko ezpondan kokatutako perimetro-bidearen amaieran dagoen hodi-zorrotenera eramango dira, eta hortik geldoen zabortegiko drainatze-sareko lixibiatuen irteeraraino, bertan nahasteko.

Hobi septikoko efluentea zisterna-kamioi bidez biltzen da, tratatzeko.

Gurpil-garbitokiko soberako hondakin-urak ustiatzen ari den gelaxkako lixibiatuen drainatze-sistemarekin lotuko dira, eta gelaxka hori ustiatu bitartean, sortutako gainerako lixibiatuekin kudeatuko dira.

Hondakin-masako gasak dauden tximinien bidez biltzen eta husten dira.

Instalazioan sortzen diren hondakin nagusiak gaika bereizitako baliotu daitezkeen hondakinak, hobi septikokoak eta gurpil-garbitokiko lohiak dira.

Proiektuan aurreikusitako ekoizte-prozesuek teknika erabilgarri onenak osatzen edo barne hartzen dituzte. Horrela, ingurumena osotasunean babesteko helburuak betetzen dituzte, kutsaduraren prebentzio eta kontrol integratuari buruz indarrean den araudian adierazitakoari jarraituz.

Bigarrena.– San Markos-eko Mankomunitateak Donostiako udalerrian (Gipuzkoa) sustatutako hondakin geldo eta ez-arriskutsuen zabortegia ustiatzeko ondorengo baldintzak eta eskakizunak ezartzea.

A) Erantzukizun zibileko aseguru bat eratu beharko da milioi bat (1.000.000) euroko zenbatekoaz, ondorengoak estaliko dituena: hirugarren pertsonei edo horien ondasunei sortutako balizko kalteengatiko kalte-ordainak, eta baimen honek onartutako jardueraren ondorioz ingurumen aldatua konpondu eta berreskuratzeko kostuak.

San Markos-eko Mankomunitateak kontratatutako aseguruaren baldintza orokorren, partikularren eta bereizien kopia bidali beharko dio Ingurumen Organoari, ingurumen-organoak onar dezan.

Erantzukizun zibileko aseguruaren eguneratzea egiaztatzen duen agiria urtero bidali beharko zaio Ingurumen Organoari. Polizan aldaketarik izanez gero, ingurumen-organoari jakinarazi

beharko zaio; halaber, kontratatutako aseguru berriaren baldintza orokorren, partikularren eta bereizien kopia igorri beharko zaio.

B) Sustatzaileak finantzen azterketa eguneratua aurkeztu beharko du eta bertan jasoko dira instalazioa ezarri eta ustiatzeko kostuak, A (erantzukizun zibileko asegurua) puntuan ezarritako bermeen ondoriozko gastuak, ixtearen eta 30 urteko eperako ondorengo mantentze-lanen kostu balioetsiak, eta baimen honetan ezarritako eskakizun guztiak.

Finantzen azterketa horretan, gastuak eta diru-sarrerak partidaka eta urteka xehatuta egongo dira, aurreikusitako ustiapen-planarekiko koherentzian.

C) Administrazioarekiko harremanen arduradunari buruz emandako datuetan aldaketarik badago, San Markos-eko Mankomunitateak aldaketa horien berri emango du Ingurumen Sailburuordetzan.

D) Neurri babesle eta zuzentzaileak, sustatzaileak Ingurumen Sailburuordetza honetan aurkeztu dituen agirietan aurreikusi bezala burutuko dira, indarrean dagoen araudiaren arabera eta ondorengo ataletan ezarritakoari jarraituz:

D.1.– Hondakin ez-arriskutsuen zabortegia eta gelaxka eraikitzeko eta handitzeko baldintza orokorrak.

D.1.1.– Jarduketa-esparrua mugatzea:

a) Obrak eta lurzoruaren okupazioa ekartzen duten eragiketa osagarriak proiektuaren mugen barruan garatuko dira. Makinek eta ibilgailuek muga horietatik kanpo zirkulatzea ahalik eta gehien murriztuko da.

b) Adierazitako esparru horretan ustekabeko kalteren bat sortuz gero, neurri zuzentzaile eta gunea eraberritzeko neurri egokiak hartuko dira, ebazpen honen D.1.11 atalean aipatutako ingurumen-aholkularitzak txostena egin ondoren.

c) Obrarako sarbideak, makina-parkea, obrako materialak aldi baterako biltegiratzeko gunea, hondeaketa-lurren eta hondakinen aldi baterako metaketak ingurumenean ahalik eta eragin txikiena izateko moduan proiektatuko dira. Obrak hasi aurretik, aurreko alderdiak xehetasunez adierazten dituen mugaketa egingo da kartografian. Mugatze hori obra-zuzendaritzak onartu beharko du, aurrez ebazpen honetako E.1.11 atalean aipatutako ingurumen-aholkularitzaren txostena eginda.

D.1.2.– Lurzorua eta urak babesteko neurriak.

a) Obrako makina-parkearentzat bereizitako azalera eta horren mantentze-eremua drainatze naturaleko saretik isolatuko da. Zola iragazgaitza eta efluenteak biltzeko sistema bat izango ditu, lurzorua eta ura olio eta erregaiekin ez kutsatzeko. Erregaien zamalanak, olio-aldaketak eta tailerreko jarduerak ez dira baimenduko adierazitako eremuetatik kanpo.

b) Eraikitze-fasean saneamendu-sare nagusira ahalik eta xeheki gutxien isuriko dira. Horretarako, ura bideratzeko tresnak eta solido esekiak atxikitzeko sistemak proiektatu eta egingo dira, horietan obren ondoriozko ur kutsatua biltzeko.

D.1.3.– Hauts-isuriak gutxitzeko neurriak.

a) Obrak dirauen artean, bideak eta ibilgailuak igarotzeko beste lekuak garbitzeko kontrol zorrotza burutuko da, bai obrek erasandako ingurunean, bai horietarako sarbideetan. Pistak eta aldi baterako soil egongo diren eremuak ureztatzeko sistema bat egongo da.

b) Obra-eremuetako irteeran ibilgailuak garbitzeko dekantazio-putzuetara lotutako gailuak egongo dira. Instalazio horien ezaugarriak eta kokaleku zehatza ebazpen honen D.1.12 puntuak aipatzen duen agirian jaso beharko dira.

D.1.4.– Zaraten eta bibrazioen eraginak gutxitzeko neurriak.

Eraikitze-fasean zarata jatorrian sortzea gutxitzeko neurriak aplikatu beharko dira.

D.1.5.– Hondakinak kudeatzeko neurriak.

a) Obretan sortutako hondakinak, hondeaketakoak, ebakiak, enbalajeak, erreuseko lehengaiak eta garbiketa-kanpainakoak barne, hondakinen apirilaren 21eko 10/1998 Legean, eta aplikatzekoak diren berariazko araudietan aurreikusitakoaren arabera kudeatuko dira.

b) Obran sortutako hondakin guztiak, horien baliotzea teknikoki eta ekonomikoki bideragarria bada, hondakin-balioztagune baimendu batera igorri beharko dira. Hondakinak ezabatu ahal izango dira, baldin eta aurrez horiek baliotzea teknika, ekonomia edota ingurumen aldetik bideragarria ez dela behar bezala egiaztatzen bada.

c) Berrerabiltzen edo balioztatzen ez diren materialak, zabortegira eraman eta ondorengo araudian ezarritakoaren arabera kudeatuko dira: abenduaren 27ko 1481/2001 Errege Dekretuan, zabortegian hondakinak ezabatzea arautzen duenean, nahiz 2002ko abenduaren 19ko Kontseiluaren 2003/33/EE Erabakian, 1999/31/EEE Zuzentarauaren, zabortegietan hondakinak onartzeko irizpideak eta prozedurak ezartzen dituenaren, II. eranskineko 16. artikuluarekin bat.

d) Lurrak betetzeko edo egokitzeko hondakinak hondakin geldo eta geldoarazien kudeaketari buruzko azaroaren 2ko 423/1994 Dekretuaren arabera kudeatuko dira.

e) Soberakin-andelak eraiki behar balira, azaroaren 2ko 423/1994 Dekretuan ezarritakoa betez, kasu bakoitzean soberakin-andelak instalatzeko proiektua idatzi behar litzateke, eta horren edukia Lurralde Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurumen sailburuaren 1995eko otsailaren 15eko Aginduan zehaztutakora egokituko da (agindu hori hondakin geldoen edo geldoarazien instalazioen, betelanen edo lurra egokitzeko lanen proiektu tekniko edo txosten deskriptiboen edukiari buruzkoa da), eta baldintza hauek beteko ditu gainera:

- Aurreikusitako sarbideak, lehendik zeudenak edo egin beharrekoak.
- Andel bakoitzaren gehienezko hedadura seinaleztatzea.
- Andel guztietarako paisaia-lehengoratze berezituaren diseinua.

Proiektu horiek Ingurumen Sailburuordetzaren baimena behar dute.

f) Olio erabiliak ondorengo araudiei jarraituz kudeatuko dira: irailaren 29ko 259/1998 Dekretua, Euskal Autonomia Erkidegoko olio erabilien kudeaketa arautzen duena, eta ekainaren 2ko 679/2006 Errege Dekretua, industriako olio erabilien kudeaketa arautzen duena.

Olio erabiliak kubeta edo segurtasun-sistema barruko andeletan gordeko dira aldi baterako, kudeatzaile baimenduak jaso arte, andel nagusia hausteagatik edo estankotasuna galtzeagatik olioak sakabanatzea saihesteko.

g) Hondakinak kudeatzeko araudia betetzea errazteko, lan guztietan sortutako hondakinak kudeatzeko sistemak jarri beharko dira. Sistema horiek lan horien arduradunek kudeatuko dituzte, horiek izango baitira langileek sistemak zuzen erabiltzearen arduradunak. Bereziki, erregai eta

produktuak biltegiratzearen, makinen mantentze-lanak egitearen edo hondakinak erretzearen ondorioz ez dira inolaz ere efluente kontrolatugabeak sortuko.

Aurrekoaren haritik, berariazko eremu bat egokituko da olio-latak, iragazkiak, olioak, pinturak, etab. bezalako hondakin arriskutsuak biltegiratzeko instalazio estaliak jartzeko, eta horietatik bereiz, hondakin ez-arriskutsu eta geldoetarako berariazko edukiontziak jarriko dira. Edukiontzi horiek itxita egongo dira kudeatzaileari entregatu arte, edukia lurrunketagatik edo isurtzeagatik galtzea saihesteko. Era berean, obran barrena, sortutako hondakinak biltzeko gailu estankoak (bidoiak, etab.) ezarriko dira, eta horiek, beren izaeraren arabera sakabanatuko dira, aurretiaz aipatutako garbigune horretan behin-behinean biltegiratuta egonda.

D.1.6.– Lursaila zabaltzeko lur zatia betetzeko erabiliko diren materialen kontrola.

Obrak burutzeko behar diren materialei dagokienez, ondorengo materialak baino ezingo dira erabili:

● Obra honetako hondeaketako materialak.

● Arku elektrikoko labeetan altzairua fabrikatzearen ondoriozko zepa beltzak, aurrez baliotze-prozesu bat igaro dutenak, otsailaren 18ko 34/2003 Dekretuan ezarritako baldintzetan. Dekretu horrek Euskal Autonomia Erkidegoan arku elektrikoko labeetan altzairua fabrikatzearen ondoriozko zepa beltzak baliotu eta ondoren erabiltzea arautzen du. Kasu honetan, une oro urpean egoten diren tokietan uztea saihestuko da, eta beste material geldo natural edo obren estrados-eremuetako betelanetan erabiliko dira.

● Eraikuntzako eta eraisketako hondakinak baliotu ondorengo agregakin sekundarioak.

● Agregakin naturalak.

D.1.7.– Kultura-ondarea babesteko neurriak.

Euskal Kultur Ondareari buruzko uztailaren 3ko 7/1990 Legean xedatutakoa kaltetu gabe, obretan zehar arkeologia-izaerako aztarnarik aurkituko balitz, berehala jakinaraziko zaio Gipuzkoako Foru Aldundiko Kulturako Zuzendaritza Nagusiari, horrek behar diren neurriak har ditzan.

D.1.8.– Natura-ondarea babesteko neurriak.

Hondakin ez-arriskutsuen zabortegia eta instalazio osagarriak egiteko obra-planetan, eta sarbide eta pista osagarriak irekitzean, zuzeneko okupaziorik aurreikusten ez den guneetan bertako landaredia sasiz garbitzea saihestu beharko da.

D.1.9.– Paisaia-integrazioa.

a) Lur-mugimenduetan zehar, landare-lurra modu bereizian kendu, metatu eta hedatuko da, erasandako espazioak lehengoratzeko eta landare-estalkia jartzeko lanak erraztearren.

b) Zabortegiaren proiektuak erasandako gainazalak lehengoratzea, oro har, sustatzaileak 0. liburukia proiektu teknikoan, zehazki 8.3 atalean paisaia babesteko proposatutako neurriei jarraituz burutuko da.

c) Erasandako gune guztiak, zabortegia ezarri den lur zatian eta bere instalazio osagarri eta sarbideetan kokatutakoak, eta zerbitzu-sareen eta lixibiatuen hustuketa gauzatzeko beharrezkoak direnak berrituko dira; baita aurkeztutako berritze-planean agertzen ez diren, baina plana bukatu ondoren aldatutakoak ere.

d) Ereite eta landaketen mantentze-lanak egin beharko dira, hau da, azaletik aitzurtu, ongarritu, ureztatu eta hutsarteak bete.

D.1.10.– Garbiketa eta obra-akabera.

Obra amaitu ondoren, garbiketa-kanpaina zorrotz bat burutuko da, eta proiektuaren eragin-eremua obra-soberakinez guztiz garbi geratu beharko da.

D.1.11.– Ingurumenari buruzko aholkularitza.

Obra amaitu arte eta horren berme-aldian zehar, obra-zuzendaritzak ingurumenaren, eta oro har, neurri babesle eta zuzentzaileen inguruan kualifikatutako aholkularitza izan beharko du. Gai horiei buruz baldintza-agiriak obra-zuzendaritzari esleitzen dizkion funtzioekin lotutako ebazpenak aholkularitza hori egiten duten adituek txostena egin aurretik eman beharko dira.

D.1.12.– Lan-programa diseinatzea.

Kontratistak ekintza-proposamen xehatu batzuk egin beharko ditu ondorengo azpiataletan adierazitako alderdiei buruz. Proposamen horiek, ebazpen honetan kasu bakoitzerako ezartzen diren irizpideen arabera diseinatuko direnak, obra-zuzendaritzak espresuki onetsi beharko ditu, aurreko atalean aipatutako ingurumen-aholkularitzak aurrez txostena eginda, eta lanak burutzeko programan txertatuko dira. Jarraian zehaztukoak dira agiriak:

a) Kokapenari buruzko xehetasunak eta kontratistaren instalazioen guneak eta hondakinak aldi baterako biltegiratzekoak, ebazpen honen D.1.1 eta D.1.5 ataletan aurreikusitakoaren arabera.

b) Ebazpen honen D.1.2 atalean aurreikusitako solido esekiak atxikitzeko gailuen xehetasunak eta kokapena.

c) Ebazpen honen D.1.3 atalean aurreikusitako ibilgailuak garbitzeko gailuen xehetasunak eta kokapena.

D.1.13.– Jardunbide egokien kontrola obren garapenean zehar.

Obrak garatu bitartean jarraibide egokien kontrol bat egingo da, arreta berezia jarriz eragindako azalerari eta ingurune urtarraren babesari, hondakinen kudeaketari (hondeaketako soberakinak barne), solido esekiak atxikitzeko gailuen funtzionamenduari, hautsa eta zarata egiteari, eta ebazpen honetan adierazitako beste alderdi batzuei.

D.1.14.– Obra-amaierako txostena.

Sustatzaileak obra-amaierako txosten bat igorri beharko du Ingurumen Sailburuordetzara, obretan zehar izandako gorabeheren eta ebazpen honetan jasotako neurri babesle eta zuzentzaileen betetze-mailaren berri emateko.

Txosten horretan proiektua burutzean sartutako aldaketa zehatzak, izan badira, zehazki dokumentatu beharko dira, horiek ingurumen-ondorioen aldetik justifikatuz. Eraikitze-fasean zehar garatutako ingurumena zaintzeko programaren emaitzak eta hondeaketako materialen helmuga zehatza ere jasoko dira, horien kuantifikazioari eta karakterizazioari buruzko datuak barne.

D.2.– Ontzia handitzeko egokitzapen-lanetarako eta handitzearen eta hondakin ez-arriskutsuen gelaxka iragazgaizteko obretarako baldintzak.

D.2.1.– Iragazgaizte-obrak hasi aurretiko baldintzak.

San Markos-eko Mankomunitateak eraikitzailearen eta sustatzailearen mende ez dagoen obra-zuzendaritza bat izendatu beharko du.

Halaber, zabortegia iragazgaizteko geosintetikoen instalazioaren kalitatea bermatzeko kontrolaz arduratuko den eta sustatzailearen eta eraikitzailearen mende ez dagoen enpresa izendatu beharko du. Enpresa hori izango da ebazpen honetako D.2.2 atalean ezarritako baldintzak betetzen diren egiaztatzeko arduraduna.

Obrak hasi aurretik, San Markos-eko Mankomunitateak zuzendaritza teknikoaren eta iragazgaizterako geosintetikoen instalazioaren kalitatea bermatzeko kontrola egingo duen enpresa arduradunaren izendapenaren berri eman beharko dio ingurumen-organoari.

D.2.2.– Zabortegia iragazgaizteko obrak burutzeko baldintzak eta eskakizunak.

a) Iragazgaiztea isuri-ontziaren hondo osoan eta alboetan egingo da. Iragazgaiztearen segida ondorengoa izango da (goitik behera):

Lixibiatuen geruza iragazlea. Material pikordun naturalaren geruzaz osatuta egon daiteke (legarrak edo hareak), sastatzearen aurkako geozuntzaren bidez azpiko geomintzaz bereizia, eta gainetik iragazki-geruzaren bidez, edo drainatzaile-geokonposatuaren bidez, edo segida baten bidez: sastatzearen aurkako geozuntza - geosarea – iragazki-funtzioa duen geozuntza. Nolanahi ere, geruza iragazle honen igorgarritasuna drainatzearen luzeraren, drainatzearen isurialdearen eta hondakinen eroankortasun hidrauliko asearen arabera kalkulatuko da. Horrela, ezarritako geruzaren igorgarritasunak kalkulatutako igorgarritasunarekiko (20-ko segurtasun-faktorea (FS) izan dezan eta geruza horren barruan lodiera aseak geruzaren lodiera edo 0,30 m gainditu ez ditzan; txikiena den neurria, hain zuzen ere. Baldintza hau betetzearen justifikazioa geruza iragazleen iragazkortasunean, hodietaraino duten isurialdean eta luzeran eta hondakinen masaren batez besteko iragazkortasunean oinarrituko da. Geruza iragazle hauen oinarriak gutxienez % 2ko isurialdea izango du lixibiatuak biltzeko hodietaraino.

2 mm-ko lodiera duen dentsitate altuko polietilenozko (HDPE) geomintza.

Hesi geologiko artifiziala. 0,60 m-ko lodiera eta (10-9 m/s-ko iragazkortasuna duen geruza mineral trinkotuaz osatuta egongo da, 0,15 m-ko 4 geruzen bidez eraikia. Aurrekoak bezalako babesa eskainiz gero, txandaka bentonitazko geokonposatua (esaterako, ezponda-eremuetan) edo hondakin trinkotuak erabili ahal izango dira egungo zabortegiak okupatutako eremuetan.

0,50 m-ko lodiera duen erregularizazio-geruza, Proctor Aldatua entseguaren gehienezko dentsitatearen % 95era trinkotutako hondakin hautatuaz osatua.

b) Aurreikusi beharrekoa da jada jarritako hondakin-masaren gainean kokatu beharreko zabortegiaren iragazgaizteak asentatzeak jasatea, horien degradazioren ondorioz eta gainean utzi beharreko hondakinen pisuaren ondorioz. Ondorioz, entseguak eginez, utzitako hondakinen eta iragazgaiztean erabili beharreko materialen deformagarritasuna zehaztu beharko da. Kalkuluen bidez justifikatuko da, asentatze horien ondorioz, zabortegiaren oinarriaren iragazgaiztearen formaren diseinuak deformazio onargarria jasango duela. Azkenik, asentatze/deformazioen kontrolerako plana diseinatuko da, egindako aurreikuspenak betetzen diren egiaztatzeko. Plan horrek erabili beharreko kontrol-metodoak, kontrol-lekuak, neurketen maiztasuna, neurketa-prozedurak eta egindako aurreikuspenak betetzearen egiaztapen-prozedura zehaztu beharko ditu.

c) Zabortegiaren egonkortasunaren azterketa berri bat egingo da. Azterketak balizko hausturak aztertuko ditu, bai hondakinen masaren bidez, bai iragazgaiztea osatzen duten geruzen alde kanpoaldeko dikearen dimentsioak eta ezaugarriak definitzeko, bai hondakinen eta zimentaziolurraren bidez. Material desberdinetarako erabilitako parametro geoteknikoak ahal bada in situ egindako entseguetatik eskuratuko dira. Irristaduraren aurrean, segurtasun-faktorea (FS) honelakoa izan behar da:

● Egoera normalean: FS ≥ 1,50.

● Ustekabeko egoeran (drainatze-sistemaren akatsa): FS ≥ 1,30.

d) Ontzia prestatzeko eta zabortegia iragazgaizteko lanak burutzen diren bitartean proiektuan funtsezko aldaketak ekar ditzakeen aldaketarik eginez gero, Ingurumen Sailburuordetzari jakinaraziko zaio balorazioa egin dezan, eta hala badagokio, burutu aurretik onar dezan.

D.2.3.– Sustatzailearen betebeharrak zabortegia iragazgaizteko obrak amaitu ondoren.

Zabortegiaren gelaxka bakoitza eraikitzen bukatu ondoren, obra-zuzendariak eraikitzea ebazpen honek ezarritako baldintza eta eskakizunei egokituta eta ebazpenaren oinarri diren agiri teknikoak beteta gauzatu dela egiaztatu beharko du. Egiaztapena egiteko, obraren zuzendariak sinatutako zabortegiaren gelaxka eraikitzeko obra-amaierako ziurtagiria bidali beharko du, ondorengo agiriekin batera:

Eraikitze-proiektua («as built»), dagokion elkargo ofizial profesionalak oniritzia emanda. Plano-jokoa eta obra-fasean egindako aldaketek ebazpen honetan eta ebazpenaren oinarri diren agirietan ezarritako baldintza eta eskakizunei dagokienez segurtasun-murrizketa ekartzen ez dutela adierazten duen justifikazioa. Halaber, obra bukatzean ezin ikusi diren elementuen eta euren ezaugarrien argazki-erreportajea egin beharko du, xehetasunen ikuspegiak eta planoan duten kokalekua azalduz, ikuspegi panoramiko orokor gisa.

Iragazgaiztearen segidaren geomintzaren gaineko azaleraren plano topografiko bat, UTM-ETRS98 koordenatuetan eta kota absolutuetan.

Eraikuntza-kalitatea kontrolatzeko eta bermatzeko programaren emaitzak. Programa horrek barne hartuko ditu eginiko lanak deskribatzen dituen memoria, emaitzak eta ondorioak laburbiltzen dituzten taulak barne; horrez gain, esparruko eta laborategiko emaitza analitiko guztiak jasotzen dituzten eranskinak (azken horien txosten osoak hartuko dira) eta laginketa-puntuen kokapena plano takimetrikoan.

Agiri horiek Ingurumen Organoari aurkeztuko zaizkio, onar ditzan. Aurkeztutako agiriak egokiak direla ziurtatu eta egiaztatzeko bisita egin ondoren, Ingurumen Organoak alderdi horien inguruko ziurtagiria egingo du.

D.3.– Instalazioaren jardunerako baldintza orokorrak.

D.3.1.– Hondakinak hartu eta ikuskatzeko baldintzak eta kontrolak.

Hondakinak deuseztatu daitezen zabortegian utzi ahal izango dira, baldin eta aurretiazko tratamendua jaso badute edo horien baliotzea teknika, ekonomia edo ingurumenaren aldetik bideragarria ez dela behar bezala justifikatzen bada. Ondorioz, zabortegira iritsi eta baliotu daitezkeen hondakinak bereizi eta dagokien banakako edukiontzietan gorde behar dira, helburu horretarako balioztagune baimendura eraman arte. Helburu horretarako eta egungo egoeran, hondakin hauek baliotu daitezke: papera eta kartoia, metalak, eraikuntzako eta eraispeneko hondakinak, beira, zura, plastikozko eta metalezko ontziak, erabiltzen ez diren pneumatikoak, kanpo-diametroa 1.400 mm baino txikiagoa dutenak, bizikletenak salbu. Zerrenda handitu egingo da, hondakin berriak baliotzeko kudeatzaile baimenduak sortzen diren neurrian.

Zabortegian ezabatu daitezen onartutako hondakinak, hondakinak baliotzeko eta ezabatzeko eragiketak eta Hondakinen Europako Zerrenda argitaratzen dituen otsailaren 8ko MAM/304/2002 Aginduaren bidez argitaratutako Hondakinen Europako Zerrendaren arabera sailkatuta daude eta ebazpen honetako I. eranskinean adierazitakoak dira.

Ondorengo baldintzak dituzten hondakinak ez dira inolaz ere onartuko:

1.– 50 gradu zentigradutik gorako hondakinak.

2.– % 65eko hezetasunetik gorako hondakinak.

Hondakin ez-arriskutsu horiek, Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurumen Organoak «Euskal Herriko zabortegietan hondakinak onartzeko irizpideak eta prozedurak» izeneko agirian ezarritako artezpideetan hondakin ez-arriskutsuen zabortegietarako ezarritako onarpen-irizpideak bete beharko dituzte.

Nolanahi ere, hondakinak onartu ahal izateko, lixibiatze-saiakuntzak egin beharko dira, UNE-EN 12457-4 arauaren arabera «Hondakinak karakterizatzea. Lixibiatzea. Hondakin pikortsuak eta lohiak lixibiatzeko adostasun-saiakuntza. 4. zatia: 10 l/kg-ko likido/solido erlazioa duen etapa baten lotekako saiakuntza, 10 mm-tik beherako partikula-tamaina duten materialetarako (tamaina-txikitzea izan edo ez)».

Hainbat parametrotan ezarritako mugak gainditzen badira perkolazio-saiakuntzak onartu ahal izango dira NEN-7343 arau holandarraren arabera. Dena dela, saiakuntzak Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurumen Organoak arlo horretan ezarritako artezpideen arabera egin beharko dira.

Onargarriak ez diren hondakinak biltegiratzeko gune bat izango da, hormigoizko oinarria eta urak biltzekoa dituena.

Zabortegiaren perimetro-itxitura izan beharko da, ustiapenaz kanpoko langileak sar ez daitezen. Plastiko arinak eta partikulatutako materiala sakabanatzea murriztuko duen elementuaren bidez osatuko da itxitura.

Instalazioak sarrera bakarra izango du, eta sarrerak langa kanadarra izango du, ganadua eta bestelako animaliak barrura sar daitezen eragozteko.

San Markos-eko Mankomunitateak hilero hondakinen onarpen-agiriak eta jarraipen eta kontrolerako agiriak ondo beteta bidali beharko dizkio Ingurumen Organoari, hondakin geldo eta geldotuen kudeaketari buruzko arazoaren 2ko 423/1994 Dekretuaren 17, 18 eta 19. artikuluetan ezarritakoa betez. Agiri horiek Ingurumen Sailburuordetzara bidaliko dira, ahal dela transakzio elektroniko bidez, IKS-L03 Sistemaren erakundeentzako bertsioa erabilita. Sistema informatiko hori erabiltzeak agiri horiek hilero bidaltzetik salbuesten du kudeatzailea.

San Markos-eko Mankomunitateak isuritako edo hondakin-balioztagune baimendura igorritako hondakinen laburpena bidali beharko dio Ingurumen Organoari formatu elektronikoan, ondorengo hauek adieraziz:

● Hondakinaren sailkapena, hondakinak baliotzeko eta ezabatzeko eragiketak eta Hondakinen Europako Zerrenda argitaratzen dituen otsailaren 8ko MAM/304/2002 Aginduaren bidez argitaratutako Hondakinen Europako Zerrendaren arabera.

● Hondakinaren kopurua (tonatan).

● Hondakinaren sortzailea.

● Helmugako hondakinen kudeatzailea.

D.3.2.– Lixibiatuen sorkuntza murrizteko ustiapenaren baldintzak.

Zabortegia ustiatzean euri-uren eragin zuzena jasan dezaketen hondakinen gehienezko azalerak ez du inolaz ere 10.000 m^2 balioa gainditukо.

Zabortegiko gelaxka baten zigilatzea ez da 90 egun baino gehiagoko epean abiatuko, aurreikusitako azken kotetara iristen den unetik kontatzen hasita. Zigilatze hori aldi baterako zigilatzea izango da, azaleraren gainean proiektuak ondorengo faseetan hondakinak uztea aurreikusten duenean, edo behin betiko zigilatzea izango da, aipatu azaleraren gainean azken zigilatzea ezarri behar denean. Kanpoko arrazoiak direla-eta (meteorologikoak, materialaren erabilgarritasuna, etab.) azken zigilatzea epe horren barruan hastea ezinezkoa bada, aldi baterako zigilatzea ezarriko da, trinkotutako lurrez edo geomintz batez osatua, iragazketa murriztuko duena eta perimetro-kanaletara zuzenduko diren ur garbiez osatutako gainazaleko jariatzea osatzea ahalbidetuko duena. Nolanahi ere, behin betiko zigilatzea 9 hilabete baino lehen abiatuko da eta 12 hilabete baino lehen bukatuko da, hondakinak aurreikusitako gelaxkaren azken kotetara iristen diren unetik kontatzen hasita.

D.3.3.– Isurketari buruzko baldintzak.

D.3.3.1.– Isurien sailkapena, jatorria, ingurune hartzailea eta kokapena.

Isurketa sortzen duen jarduera mota nagusia: hondakin ez-arriskutsuen zabortegia.

Jarduera-taldea: 0-Zerbitzuak.

Klasea: 1-EJSN: 90020. Bestelako hondakinak bildu eta tratatzea.

Isurketa-puntua	Hondakin-ur mota	Isurketaren jatorria	Ingurune hartzailea	Isurketa-puntuaren UTM koordenatuak
1	Lixibiatua	Zabortegiko lixibiatua	Urumea Ibaiko Kolektorearen Erabiltzaileen Mankomunitatea	X: 584.108 Y: 4.792.373

D.3.3.2.– Gehienez isur daitezkeen emari eta bolumenak.

a) 1. isurketa: lixibiatua.

Urteko gehienezko bolumena	171.264 m^3
Eguneko batez besteko emaria	556,77 m^3/egun
Eguneko gehienezko emaria	103,10 m^3/h

D.3.3.3.– Isurtzeko muga-balioak.

Saneamendu-sarera egiten diren isurketen kutsaduraren parametroen ezaugarri nagusiak ondorengo zerrendan ageri direnak izango dira soilik, bakoitzarentzat ezarritako gehienezko mugekin:

Parametroak	Isurtzeko muga-balioak
pH-a	5,5-9,5
Tenperatura	40 ºC
OEK	3.000 mg/l
OEB_5	1.000 mg/l
Olioak eta koipeak	100 mg/l
Solido esekiak	1.000 mg/l

Parametroak	Isurtzeko muga-balioak
Sulfatoak	500 mg/l
Sulfuroak	2 mg/l
Guztizko fosforoa	15 mg/l
Fluoruroak	10 mg/l
Zianatoak	5 mg/l
Guztizko zianuroak	1 mg/l
Nitrogeno amoniakala	40 mg/l
Guztizko nitrogenoa	70 mgN/l
Artsenikoa	1 mg/l
Kadmioa	0,25 mg/l
Beruna	1 mg/l
Merkurioa	0,05 mg/l
Burdina	100 mg/l
Nikela	3 mg/l
Zinka	3 mg/l
Kobrea	1 mg/l
Kromo VI	1,5 mg/l
Guztizko kromoa	4 mg/l
Fenolak	0,5 mg/l
Toxikotasuna	25 equitox/l
AOX-ak	3 mg/l

Metalen kontzentrazioak elementu horien «guztizko» edukiari dagozkie.

Ezingo dira diluzio-teknikak erabili isurtzeko muga-balioak lortzeko.

D.3.3.4.– Araztu eta husteko instalazioak.

Hondakin ez-arriskutsuen gelaxkan sortutako lixibiatuak isuri-ontzi barruko bilketa-sistema baten bidez bilduko dira, eta harbetatik ibaian behera eta hondakin-eremutik kanpoko dagoen kontrol-kutxeta batera eramango dira. Kontrol-kutxetatik zabortegiaren behealdeko ezpondan kokatutako perimetro-bidearen amaieran dagoen hodi-zorrotenera eramango dira, eta hortik geldoen zabortegiko drainatze-sareko lixibiatuen irteeraraino.

Geldoen zabortegiko lixibiatuak kontrol-kutxeta batera eramango dira, eta hortik atxikipen-lubetaraino bideratuko dira, hondakin ez-arriskutsuen gelaxkako lixibiatuekin nahasteko. Ur gordin horiek hodi independente batetik Urumea Ibaiko Kolektorearen Erabiltzaileen Mankomunitatearen kolektorera lotzen den punturaino eramango dira. Hodi horrek ur gordinen kontrol-kutxeta bat izango du, totalizatzailea duen emari-neurgailua duena.

Hobi septikoko efluentea zabortegiko masara bidaliko da lixibiatu gisa husteko, edo udal-saneamendura gehituko da. Hobiak eta iragazkiak mantentze-lan egokiak izango dituzte, eta garbiketako lokatzak eta lohiak behar bezala kudeatuko dira.

Gurpilak garbitzeko sistemaren ezaugarriak hauek izango dira: sareta edo arrabolez osatuta egongo da, horren gainean kamioien gurpilak pasatu ahal izateko, aspertsore batzuen bidez botatako presiozko uraren bidez garbitzen diren bitartean. Garbiketako ura birziklatu eta lohiak modu automatikoan erauziko dira (Arquimedesen torlojuaren edo antzekoaren bidez). Gurpilak

garbitzeko sistemaren saretak edo arrabolek gutxienez garbitu beharreko gurpil handienaren zirkunferentziaren luzera izan beharko dute.

Gurpilak garbitzeko sistemako hondakin-urak, gainezkaldiak eta ihesak bildu eta zabortegiko gelaxketako lixibiatuak drainatzeko sistemarekin lotuko dira, eta zabortegia ustiatzean sortzen diren lixibiatuekin batera kudeatuko dira. Ezin izango dira ibilgura isuri.

Instalazioetan, lurzoru-erreserba izango da sortutako lixibiatuentzat berariazko aurretratamendu bat instalatzea beharrezkoa baldin bada ere.

Gutxienez, ondorengo kontrol-kutxetak edo -puntuak jarriko dira; kutxeta edo puntu horiek isurketen lagin esanguratsuak lortzeko beharrezko ezaugarri guztiak izango dituzte:

● Hondakin ez-arriskutsuen gelaxkako lixibiatuak biltzeko kutxeta.

● Hondakin geldoen zabortegiko lixibiatuak biltzeko kutxeta.

● Lixibiatu gordinak biltzeko kutxeta (bi lixibiatuen nahasketa) isuri aurretik.

● Perimetro-kanaletako euri-urak biltzeko kutxeta.

● Azpiazaleko urak biltzeko kutxeta.

Ondorengo kontrolerako gailuak instalatuko dira gutxienez:

● Totalizatzailea duen emari-neurgailua lixibiatu hauetarako: hondakin ez-arriskutsuen gelaxkakoak, hondakin geldoen zabortegikoak eta lixibiatu gordinak (bi lixibiatuen nahasketa).

● Euri-neurgailua.

● Lurrazpiko uren kontrolerako piezometroak. Gutxienez, zabortegitik uretan gora, lurpeko uren sarrera-fluxuaren norabidean dagoen puntu batean eta, gutxienez, zabortegitik uretan behera eta irteera-fluxuaren norabidean, bi puntu.

Plano bat aurkeztu beharko da ebazpen honen H.1.a) atalean jasotako kontrol-puntu bakoitzaren kokapena eta UTM koordenatuak adierazteko.

Isurketak, bere konposizioagatik, ezarritako mugak betetzeko zailtasunak baditu, horiek betetzea bermatuko duen tratamendu-sistema instalatuko da. Proiektu hori aurrez aurkeztuko da Ingurumen Sailburuordetzaren aurrean, onar dezan.

D.3.4.– Instalazioan sortutako hondakinak egoki kudeatzen direla bermatzeko baldintzak.

Instalazioetan sortzen diren hondakin guztiak hondakinei buruzko apirilaren 21eko 10/1998 Legean eta aplikatzekoa den berariazko gainerako araudian xedatutakoari jarraituz kudeatuko dira; hala badagokio, hondakinak karakterizatu egin beharko dira euren izaera zehaztu eta helburu egokiena erabakitzeko.

Espresuki debekatuta dago sortzen diren tipologia desberdineko hondakinak elkarrekin edo beste hondakin nahiz efluente batzuekin nahastea; hondakinak jatorritik bertatik bereiziko dira eta horiek bildu eta biltegiratzeko bide egokiak jarriko dira, nahasketak saihesteko.

Hondakinen kudeaketari buruzko printzipio hierarkikoei jarraituz, hondakin oro baliotu egin behar da eta horretarako balioztagune baimendu batera eraman behar dira. Hondakinak ezabatu ahal izango dira, baldin eta horiek baliotzea teknika, ekonomia edota ingurumen aldetik bideragarria ez

dela behar bezala egiaztatzen bada. Birsortzea eta berrerabiltzea lehenetsiko dira baliotzeko beste modu material edo energetikoren aurretik.

Era berean, hondakinak tratatzeko Euskal Autonomia Erkidegoan instalazio baimenduak badaude, instalazio horietara bidaliko dira lehentasunez, autosufizientzia- eta gertutasun-printzipioei jarraituz.

Azken helmuga zabortegian ezabatzea duten hondakinen karakterizazioa Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurumen Organoak «Euskal Herriko zabortegietan hondakinak onartzeko irizpideak eta prozedurak» izeneko agirian ezarritako artezpideen arabera egingo da.

Hondakinak biltzeko guneak edo guneek lurzoru estankoa izan beharko dute. Egoera fisiko likidoan edo oretsuan dauden edo oso bustita daudelako isurketak edo lixibiatuak sor ditzaketen hondakinen kasuan, horiek biltzeko kubeta edo sistema egokiak jarriko dira, ezbeharrez gerta daitezkeen jarioak kanpora irten ez daitezen. Hondakina hautsa bada, euri-urarekin kontakturik izan dezan edo haizeak arrasta dezan saihestuko da; behar izanez gero, estali egingo da.

Hondakinek desagertu, galdu eta ihes egingo balute, berehala jakinaraziko da gertatutakoa Ingurumen Sailburuordetzan eta Donostiako Udalean.

D.3.4.1.– Hondakin arriskutsuak.

Sustatzaileak adierazitako hondakin arriskutsuak hauek dira:

- 1. prozesua: «Zerbitzu orokorrak».
  - 1. hondakina: «Olio erabilia».
    - Identifikazioa: P2000015D/20018160/1/1.
    - Hondakinaren kodea: Q7//R13//L08//C51//H5/6//A936(5)//B0019.
    - EHZ: 130111.
    - Urtean sortutako kantitatea: 400 l.
  - 2. hondakina: «Trapuak eta xurgatzaileak (hondakin arriskutsuez bustiak)».
    - Identifikazioa: P2000015D /20018160/1/2.
    - Hondakinaren kodea: Q5//R13//S40//C41/51//H5//A936(5)//B0019.
    - EHZ: 15 02 02.
    - Urtean sortutako kantitatea: 20 kg.
  - 3. hondakina: «Olio-iragazkiak».
    - Identifikazioa: P2000015D /20018160/1/3.
    - Hondakinaren kodea: Q5//R13//S40//C41/51//H5//A936(5)//B0019.
    - EHZ: 16 01 07.
    - Urtean sortutako kantitatea: 20 kg.

○ 4. hondakina: «Plastikozko ontzi kutsatuak».

– Identifikazioa: P2000015D /20018160/1/4.

– Hondakinaren kodea: Q5//R13//S38//C41/51//H5//A936(5)//B0019.

– EHZ: 15 01 10.

– Urtean sortutako kantitatea: 10 kg.

○ 5. hondakina: «Metalezko ontziak (gai arriskutsuez kutsatuak)».

– Identifikazioa: P2000015D /20018160/1/5.

– Hondakinaren kodea: Q5//R13//S36//C41/51//H5//A936(5)//B0019.

– EHZ: 15 01 10.

– Urtean sortutako kantitatea: noizean behin.

○ 6. hondakina: «Laborategiko hondakinak».

– Identifikazioa: P2000015D /20018160/1/6.

– Hondakinaren kodea: Q14//D15//L-S40//C16/32//H5//A936(5)//B0019.

– EHZ: 16 05 06.

– Urtean sortutako kantitatea: noizean behin.

a) Hondakin arriskutsuak biltzeko sistemak bereiziak izango dira, duten tipologia dela-eta, jarioren bat gertatuz gero, nahasi, arriskutsuago bihurtu edo kudeaketa zaildu dezaketen kasuetan.

b) Hondakin arriskutsuak dituzten ontziek hondakin toxiko eta arriskutsuei buruzko maiatzaren 14ko 20/1986 Oinarrizko Legea betearazteko erregelamendua onartzen duen uztailaren 20ko 833/1988 Errege Dekretuak 13. artikuluan ezarritako segurtasun-arauak kontuan izan beharko dituzte, eta itxita egongo dira kudeatzaileak jaso arte, jario edo lurrundu ez daitezen.

c) Aurreko atalean aipatzen diren ontziek etiketatuta egon beharko dute, eta etiketak argia, irakurtzeko modukoa eta ezabaezina izan beharko du; etiketa uztailaren 20ko 833/1988 Errege Dekretuak 14. artikuluan horretarako adierazitako jarraibideen araberakoa izango da.

d) Hondakin arriskutsuak ezingo dira 6 hilabetetik gora biltegiratu.

e) Hondakinak kudeatzaile baimenduaren instalazioetara eraman aurretik, nahitaezko baldintza izango da agiri baten bidez egiaztatzea kudeatzaile baimendu horrek hondakinak onartu dituela. Agiri horretan hondakinak onartzeko baldintzak ezarriko dira, eta egiaztatu egingo da tratatu beharreko hondakinaren ezaugarriak administrazio-baimenarekin bat datozela. Agiri hori Ingurumen Sailburuordetzara bidaliko da hondakina lehenengoz erretiratu aurretik eta, behar izanez gero, hondakin-kudeatzaile berri batengana eraman aurretik. Beharrezkoa izanez gero, karakterizazio xehatua egingo da, proposatutako tratamenduaren egokitasuna egiaztatzeko. Hala badagokio, arrazoitu egin beharko da proposatutako kudeaketa-modua ebazpen honetako hondakinen kudeaketari buruzko printzipio hierarkikoei egokitzen zaiela.

f) Hondakin arriskutsuak eraman aurretik eta, hala badagokio, araudian ezarritako aurretiazko jakinarazpena egin ondoren, kontrolerako eta jarraipenerako agiria bete beharko da. Agiri horren zati bat garraiolariari emango zaio, zamarekin batera jatorritik helmugaraino eraman dezan. San

Markos-eko Mankomunitateak artxibategian gorde beharko ditu onarpen-agiriak eta kontrolerako zein jarraipenerako agiriak, edo horien agiri ofizial baliokideak, bost urtean gutxienez.

g) Egiaztatu egin beharko da hondakin arriskutsuak kudeatzaile baimenduaren instalazioetara eramateko erabiliko den garraiobideak horrelako gaiak garraiatzeko indarrean dagoen legerian ezarritako baldintzak betetzen dituela.

h) San Markos-eko Mankomunitateak ekainaren 2ko 679/2006 Errege Dekretuari, industrian erabilitako olioaren kudeaketa arautzen duenari, jarraituz kudeatu beharko du sortutako olio erabilia.

i) Ekainaren 2ko 679/2006 Errege Dekretuan, industrian erabilitako olioaren kudeaketa arautzen duenean aurreikusitako baimendutako kudeaketa bateraturako sistema bat ezartzen ez den bitartean, irailaren 29ko 259/1998 Dekretuan, Euskal Autonomia Erkidegoan erabilitako olioaren kudeaketa arautzen duenean begiesten diren aurreikuspenak bete beharko ditu San Markos-eko Mankomunitateak.

j) San Markos-eko Mankomunitateak PCB eduki dezaketen gailuak dituenez, nahitaez bete behar ditu poliklorobifeniloak, polikloroterfeniloak eta horiek dituzten gailuak ezabatu eta kudeatzeko neurriak ezartzen dituen abuztuaren 27ko 1378/1999 Errege Dekretuaren baldintzak, eta errege-dekretu hori aldatzen duen otsailaren 24ko 228/2006 Errege Dekretua.

k) Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2000ko ekainaren 29ko 2037/2000 EE Arautegian ozono-geruza agortzen duten substantzia batzuk zehazten eta arautzen dira. San Markos-eko Mankomunitateak era horretako substantziarik badu, substantzia horiek bildu eta suntsitu egingo dira aldeek erabakitako bide teknikoak erabiliz edota ingurumen-ikuspuntutik onar daitekeen suntsiketarako beste edozein bide erabiliz; hondakin horiek birziklatu edo birsortu egingo dira bestela, aparailuak aztertu eta mantentzeko lanen aurretik nahiz desmuntatu eta suntsitu baino lehen.

Amiantoa duten hondakinak antzemanez gero, San Markos-eko Mankomunitateak amiantoak ingurumenean sortzen duen kutsadura saihestu eta gutxitzeko 1991ko otsailaren 1eko 108/1991 Errege Dekretuan ezarritako eskakizunak bete beharko ditu. Era berean, amiantoa duten hondakinak kudeatzeko egingo diren manipulazioak martxoaren 31ko 396/2006 Errege Dekretuan ezarritako aginduen arabera burutuko dira; dekretu horren bidez ezarri ziren amiantoarekin lan egiterakoan segurtasun- eta osasun-arloan bete behar diren gutxieneko baldintzak.

l) Erregistro bat edukiko du, hondakin arriskutsuei buruzko datu hauek agerrarazteko: kopurua, izaera, identifikazio-kodea, jatorria, tratatzeko metodo eta tokiak, sorrera- eta lagapen-datak, jasotzeko maiztasuna eta garraiatzeko modua, uztailaren 20ko 833/1988 Errege Dekretuaren 17. artikuluan ezarritakoa betez, eta uztailaren 20ko 952/1997 Errege Dekretuaren bidezko aldaketan ezarritakoa betez. Sei hilean behin, Ingurumen Sailburuordetzari kontrolerako erregistro horren kopia bidaliko dio.

m) Aurreko e), f) (kudeatzaileak EAEn daudenean), eta l) ataletan adierazitako agiriak Ingurumen Sailburuordetzara bidaliko dira, ahal dela transakzio elektroniko bidez, IKS-L03 Sistemaren erakundeentzako bertsioa erabilita.

D.3.4.2.– Hondakin ez-arriskutsuak.

Sustatzaileak adierazitako hondakin ez-arriskutsuak hauek dira:

Hondakinaren izena	EHZ kodea	Zein prozesuri lotuta
Plastikozko ontzi huts ez-arriskutsuak	15 01 02	Baliotu daitekeen frakzioak bereiztea
Papera eta kartoia	19 12 01	Baliotu daitekeen frakzioak bereiztea
Txatarra	19 12 02	Baliotu daitekeen frakzioak bereiztea
Beira	19 12 05	Baliotu daitekeen frakzioak bereiztea
Zura	19 12 07	Baliotu daitekeen frakzioak bereiztea
Gurpil-garbitokiko hondakina	19 08 14	Zerbitzu Orokorrak
Hobi septikoko lohiak	20 03 04	Zerbitzu Orokorrak

Sustatzaileak gorago aipatutako hondakinen sortutako kantitatea adierazi beharko du.

a) Erabilitako ontziak eta ontzi-hondakinak gaika behar bezala bereizi eta eragile ekonomiko bati emango zaizkio (hornitzaileari), erabilitako ontzien kasuan berriro erabili ahal izateko; ontzi-hondakinak, berriz, berreskuratzaile, birziklatzaile edo balioztagune baimendu batera.

b) Hondakin horiek ezabatzeko direnean ezin dira urtebetetik gora biltegiratu. Hondakinen azken helburua baliotzea denean, 2 urtez biltegiratu ahal izango dira.

c) Oro har, hondakinak hustu aurretik, kudeatzaile baimendu batek onartzen dituela dioen agiria izan beharko dute, onarpen horretarako baldintzak zehaztuta. Agiri horren kopia bidali beharko da Ingurumen Sailburuordetzara, proposatutako kudeaketa egokia dela eta ebazpen honetan ezarritako oinarrizko printzipioak betetzen direla egiaztatzeko. Hala badagokio, arrazoitu egin beharko da proposatutako kudeaketa-modua ebazpen honetako hondakinen kudeaketari buruzko printzipio hierarkikoei egokitzen zaiela. San Markos-eko Mankomunitateak artxibategian gorde beharko ditu onarpen-agiriak eta kontrolerako zein jarraipenerako agiriak, edo horien agiri ofizial baliokideak, nahitaezkoak direnean, bost urtean gutxienez.

Hondakinen kudeaketari buruzko printzipio hierarkikoei jarraituz, hondakin oro baliotu egin behar da eta horretarako balioztagune baimendu batera eraman behar dira. Hondakinak ezabatu ahal izango dira, baldin eta horiek baliotzea teknika, ekonomia edota ingurumen aldetik bideragarria ez dela behar bezala egiaztatzen bada. Birsortzea eta berrerabiltzea lehenetsiko dira baliotzeko beste modu material edo energetikoren aurretik.

d) Halaber, hondakin geldo eta geldotuen kudeaketari buruzko azaroaren 2ko 423/1994 Dekretuarekin bat etorriz, hondakin ez-arriskutsuak zabortegi baimendu batera eraman aurretik, jarraipenerako eta kontrolerako dagokion agiria bete beharko da. Agiri horiek bost urtez gorde beharko dira.

e) Erregistro bat egingo da, hondakinei buruzko datu hauek agerrarazteko: kopurua, izaera, identifikazio-kodea, jatorria, tratatzeko metodo eta tokiak, sorrera- eta lagapen-datak, biltzeko maiztasuna eta garraiatzeko modua. Urtero, Ingurumen Sailburuordetzari bidaliko zaio kontrolerako erregistro horren kopia.

f) Aurreko c) eta d) (kudeatzaileak EAEn daudenean), eta e) ataletan adierazitako agiriak Ingurumen Sailburuordetzara bidaliko dira, ahal dela transakzio elektroniko bidez, IKS-L03 Sistemaren erakundeentzako bertsioa erabilita.

D.3.5.– Lurzorua babesteko baldintzak.

Lurzorua kutsa dezaketen jardueren zerrenda eta kutsatutako lurzoruen adierazpenerako irizpideak eta estandarrak ezartzen dituen urtarrilaren 14ko 9/2005 Errege Dekretuak xedatutako betebeharrak betetze aldera lurzoruaren egoerari buruz aurretiaz aurkeztutako txostenaren arabera, eta txosten horrek jasotako gomendioak jarraituz, San Markos-eko Mankomunitateak une oro materialak biltegiratzeko gunea eta urak husteko sistema modu egokian mantentzen direla ziurtatuko duten jardunbide egokiak ezartzea proposatu beharko du. Neurri horiek prebentziozko mantentze-lanen eskuliburuan jasoko dira, eta baita ikuskatze- eta kontrol-programa eguneratu bat ere.

Hautsezko materialak arrastaka eramatea minimizatuko da, ondorengo neurri orokorrak ezarriz:

- Haize gogorra dabilenean hautsezko solidoak manipulatzea saihestu.
- Materialak paletatik deskargatzean, garaiera mugatu.

Lurzorura substantziak isurtzea murriztuko da, ondorengoak bezalako neurri orokorrak aplikatuz:

- Biltegiratzeko substantzia likido guztiek eusteko kutxetak izango dituzte.
- Ahal den neurrian, ontzien artean substantzia likidoak aldatzea saihestuko da.

Halaber, lurzoruaren egoeraren aurretiazko txostenaren ondoriozko prebentzio eta defentsa neurriak aplikatu direla eta ondo funtzionatzen dutela bermatuko da; baita Ingurumen Organoak egoki irizten dituenak edo adierazten dituenak ere.

San Markos-eko Mankomunitateak jarduera garatzen duen lur zatian lur-mugimenduak sustatzen baditu, enpresak hondeatu behar dituen materialen karakterizazioa egin beharko du, jarduketa kutsatzaileen ondorioz erasan diren egiaztatzearren eta, karakterizazio horren emaitzen arabera, horientzako kudeaketa-modu egokiena zehaztearren.

Karakterizazio horretan lortutako emaitzak, material horiek kudeatu aurretik Ingurumen Sailburuordetzara bidaliko dira, baloratzeko. Ingurumen-organoak, ebazpen arrazoitu bidez, lurzoruaren kalitatearen adierazpena egiteko prozedura hastea eskatu ahal izango du kutsadura-zantzurik antzemanez gero, lurzorua ez kutsatzeko eta kutsatutakoa garbitzeko otsailaren 4ko 1/2005 Legearen 17.6 artikuluan xedatutakoari jarraiki.

San Markos-eko Mankomunitateak egindako jarraibideak aurkeztu beharko ditu organo honen aurrean, atal honetan ezarritakoari jarraituz enpresak proposatutako prozedurak modu xehatuan jasoz.

D.3.6.– Zaratari buruzko baldintzak.

Jarraian adierazitako zarata-mailak ez gainditzeko neurriak instalatuko dira:

a) Zarata ezin da 60 dB (A) baino handiagoa izan, Leq 60 segundo etengabeko balioan, industria-eremuaren kanpoko itxituran neurtuta.

b) Zamalanetan eta materiala kamioietan garraiatzean egiten den zaratak ez du handituko sentsibilitate akustiko handieneko guneetako zarata-maila.

D.3.7.– Paisaiari buruzko baldintzak.

Paisaia babesteko ezarritako neurriak (instalatutako landare-pantailak) eta hondakin ez-arriskutsuen zabortegiaren paisaia-integrazioa, elementuak ezkutatzea eta landaredia naturala berreskuratzea hobetu dezaketen neurriak modu egokian mantentzen direla bermatu beharko da.

Hondakinak isuri-ontzitik kanpora sakabanatzea eragozteko, esaterako, baldintza meteorologikoak txarrak direnean, beharrezko neurriak ezarriko dira une bakoitzean. Halaber, bertan utzitako hondakinek usaina baldin badute, eragozpen hori murrizteko neurri eraginkorrak ezarriko dira.

Ezohiko arrazoiak direla eta hondakinak isuri-ontzitik kanpora sakabanatzen badira, San Markos-eko Mankomunitateak berehala bildu beharko ditu.

D.3.8.– Airearen kalitatea babesteko baldintzak.

Prozesuan zehar atmosferara isurtzen den gai kutsatzaile oro bildu eta ihesbide egokienean zehar kanpora bideratuko da, behar denean, gai kutsatzaileen ezaugarrien arabera diseinatutako gasak arazteko sistema batetik igaro ondoren.

Neurriak hartuko dira ustekabeko isuririk ez egiteko, eta egiten direnak giza osasunerako eta gizartearen segurtasunerako arriskutsuak izan ez daitezen. Gas-efluenteak tratatzeko instalazioak behar bezala ustiatu eta mantenduko dira, efluenteen tenperatura- eta konposizio-aldakuntzei modu eraginkorrean aurre egiteko. Era berean, ahalik eta gehien murriztuko dira instalazio horiek gaizki dabiltzan edo geldirik dauden aldiak.

Ebazpen hau aurkezten denetik sei hilabeteko epean, sustatzaileak ondorengo agiriak aurkeztuko ditu:

● Putzuen eta bilketako gasen karakterizazioaren analisia, kanpoko erakunde batek egindakoa eta ondorengo parametroak jasotzen dituena: data eta ordua, emaria, CH_4, CO_2, O_2, N_2, H_2O, gasen tenperatura eta hezetasun erlatiboa, eta airearen presio atmosferikoa, hezetasun erlatiboa eta tenperatura, gasak neurtzeko kanpainaren aurreko eta ondorengo 48 orduetan zehar.

Aurretik aipatutako analisien emaitzetan oinarrituz eta jarraian adierazitako irizpideen arabera, zabortegian sortutako gasak tratatzeko sistemaren proiektua aurkeztuko da.

Datu horien arabera, San Markos-eko Mankomunitateak zabortegiko gas-isuriak biltzeko eta tratatzeko sistema ezarri beharko du. Sistema aldez aurretik Ingurumen Organoari aurkeztu beharko dio, onar dezan. Aplikatu beharreko irizpideak hauek izango dira:

● Putzuetako metano-kontzentrazioa % 40 (bolumenari dagokionez) baino handiagoa denean, erauzitako gasa zabortegiko gasa energetikoki aprobetxatzeko planta batera bideratuko da.

● Putzuetako metano-kontzentrazioa % 25 eta % 40 artean dagoenean, ultrairagazpenaren edo antzeko teknika baten bidez mintza bereizteko sistema ezarriko da, erreusean metano-kontzentrazioa areagotzeko (iragazi gabeko frakzioa). Horrela, zabortegiko gasa energetikoki aprobetxatzeko planta batera eraman daiteke frakzio hori; beste frakzioa, aldiz, zuzira eramango da erre dadin.

● Putzuetako metano-kontzentrazioa % 25 eta % 15 artean dagoenean, erauzitako gasa zuzenean bidaliko da zuzi batera erre dadin.

● Putzuetako metano-kontzentrazioa % 5 eta % 15 artean dagoenean, erauzitako gasa zuzira bidaliko da, baita ere, erre dadin, baina aldez aurretik beste erregai batekin aberastu beharko da, errekuntza ahalbidetzeko.

● Putzuetako metano-kontzentrazioa % 5 baino txikiagoa denean, atmosferara isurtzea baimenduko da, erauzketa bortxaturen beharrik izan gabe (erauzketa pasiboa).

Erauzketaren emaria eta presioa, putzuaren eragin-erradioa 25 metrokoa izan dadin aukeratuko dira, zabortegiaren azalera osoa har dezan, bertara airerik ez sartzeko eta horrela, zabortegiko zigilatu gabeko eremuetatik barrena atmosferara isuri barreiatuak saihesteko.

Zabortegia ustiatzean sortutako gasen erauzketa gasak drainatzeko HDPEzko tximinien bidez egingo da, legarrezko inguratzailearekin artekatua. Bilketa-sistemako kondentsatuek lixibiatuekin bat egin dezaten ahalbidetuko du diseinuak.

Akaberako tratamendua zuziaren bidezkoa baldin bada, gasek 1.000-1.200 ºC arteko tenperaturara iritsiko dira zuzian eta gutxienez 0,3 segundotan (egonaldia), beharrezko turbulentzia mantenduz.

Nolanahi ere, segurtasuna dela-eta instalazioaren jabetzaren mugetan metano gasaren kontzentrazioa ez da % 5 baino handiagoa izango, ezta % 1,25 baino handiagoa ere instalazioaren espazio itxietan, kontrolerako sistemen edo gasen berreskuratzearen osagaien kasuan izan ezik.

Isuri barreiatuak murrizteko jarduerak:

● Ahal den neurrian, partikula solidoen eta hautsaren isuriak sortzea saihestuko da ibilgailuen sarrera eta irteeretan, eta zamalanetan eta hondakinak hedatzean. Xede horrekin, partikulak isur ditzaketen hautsezko materialak kamioi estalietan, hezetuetan eta zaku edo paletetan sartuta garraiatu beharko dira. Halaber, hondakinak deskargatzeko eremuak ureztatu beharko dira, ahal bada, lixibiatuen bidez.

● Azalera zati bat (isurketarena) irekita mantenduko da, ahalik eta azalera txikiena, 10.000 m^2 inguru dituena; gainerakoa estaldura-lurrekin edo polietilenozko xaflarekin estalita egongo da.

● Ibilgailuen gehieneko abiadura 20 km/h-ra mugatu behar da eta hondakinak garraiatzeko edukiontzi itxiak edo big-bag zakuak erabili behar dira.

● Deskargatzeko eremuaren sarbideak aldizka ureztatu behar dira.

D.3.9.– Biozidak erabiltzeko baldintzak.

Zabortegiaren instalazioetan bektore biologikoen kontrolerako biozidak erabiliz gero, Osasun eta Kontsumo Ministerioko Osasun Publikoko Zuzendaritza Nagusiaren bioziden erregistro ofizialean biltzen diren produktuak izan behar dute.

Biozidak erabiltzearen arloan aplikatzeko den arautegiaren kaltetan izan gabe, horien aplikazioa gutxieneko beharrezkora mugatuko da.

Produktu horiek erabiltzen hasi aurretik, Ingurumen Sailburuordetzari bidali behar zaizkio erabili behar direla aurreikusten diren biosanitarioen segurtasun-fitxa teknikoak. Halaber, hala badagokio, zerbitzu biozidez arduratzen den enpresari jakinarazi beharko zaio.

E) Hondakin geldoen eta ez-arriskutsuen zabortegia zigilatzeko obrak gauzatzeko baldintzak eta betebeharrak.

a) Zabortegiaren azken zigilatzearen segida ondorengo geruzez (behetik gora) osatuta egongo da:

● 0,50 m-ko lodiera duen erregularizazio-geruza, Proctor Aldatua entseguaren gehienezko dentsitatearen % 95era trinkotutako hondakin hautatuaz osatua.

● Hesi geologiko artifiziala. 0,60 metroko lodiera eta <= 10^{-9} m/s-ko iragazkortasuna duen geruza mineral trinkotuaz osatuta egongo da, 0,15 m-ko 4 geruzaz eraikia. Xede horretarako, ezaugarri horiek dituzten hondakin trinkotuak edo antzeko babesa bermatzen duen bentonitazko geokonposatua erabil daitezke.

● 1,5 edo 2 mm-ko lodiera duen dentsitate altuko polietilenozko geomintza (HDPE).

● Iragazketako ur garbien geruza drainatzailea. Ale formako material natural baten geruzaz osatuta egon daiteke (legarrak edo hareak), azpitik sastatzearen aurkako geozuntzaren bidez geomintzaz bereizia, eta gainetik iragazki-geruzaren bidez, edo drainatzaile-geokonposatuaren bidez. Nolanahi ere, geruza iragazle honen igorgarritasuna drainatzearen luzeraren, drainatzearen isurialdearen eta gaineko lurzoruaren estaldura-geruzaren eroankortasun hidrauliko asearen arabera kalkulatuko da. Horrela, ezarritako geruzaren igorgarritasunak kalkulatutako igorgarritasunarekiko >= 6-ko segurtasun-faktorea (FS) izan dezan eta geruza horren barruan lodiera aseak geruzaren lodiera edo 0,30 m gainditu ez ditzan; txikiena den neurria, hain zuzen ere.

● 0,60 metroko gutxieneko lodiera duen estaldura-lurzoruaren geruza.

● 0,15 metroko gutxieneko lodiera duen landare-lurzoruaren geruza.

● Gainazala belarkien bidez estaltzea. Zabortegiaren zigilatzearen gainean zuhaixkak edo zuhaitzak landatzea, helduak direla haien tamaina eta sustraiak, sakontasuna, mota, kokapena edo ezarritako babesak direla-eta, drainatze-geruzaren, geomintzaren edo zigilatzearen hesi geologiko artifizialaren segurtasunari edo funtzionaltasunari ez eragiteko baldintzapean egongo da; eta irristaduraren aurrean landaketak ez du segurtasun-faktorea 1,5etik behera murriztu beharko.

Bestelako zigilatze-segidak proposatu daitezke, modu egokian justifikatuz instalazioaren gorabehera zehatzei emandako soluzioa.

Ezponda-eremuetan instalatu aurretik, zigilatzea osatzen duten geruzen egonkortasunaren azterketa egin beharko da, geruzek irristaduraren aurrean ≥1,5eko segurtasun-faktorea dutela bermatzearren.

Zabortegiak gas kopuru adierazgarriak sortzen baditu, hesi geologiko artifizialaren azpian gasak drainatzeko geruza sartu beharko da.

b) Isurialde egokiak izan daitezen, zabortegiaren azaleraren birmoldaketa amaitu ondoren, zabortegiaren azaleraren plano takimetriko bat altxatuko da, okupatuko duen azalera eta zigilatu beharreko azalera definituko duena. Gutxienez metro bateko banda gehigarria okupatuko du, birmoldaketaren ostean zabortegiak okupatutako azalerarekiko. Plano takimetriko horren gainean, zigilatze-lanetan zehar ager daitezkeen lixibiatuen iturburuak kokatuko dira, horietako bakoitzean hauek zehaztuz: emaria, pH-a, tenperatura, eroankortasun elektrikoa (CE) eta neurketaren data.

c) Zigilatze-lanetan zehar sortzen den eta proiektuan aldaketa nabarmenak eragiten dituen aldaketa oro Ingurumen Sailburuordetzari jakinarazi behar zaio, balora dezan, eta behar bada, burutu aurretik onar dezan.

d) Hondakin ez-arriskutsuen zabortegia zigilatu ondoren, zigilatze-lanen zuzendariak lanak ebazpen honetan ezarritako baldintza eta betebeharren eta ebazpenaren oinarri den agiri teknikoen arabera bete dela egiaztatu beharko du. Egiaztapena egiteko, obra-zuzendariak sinatutako zabortegia zigilatzeko obra-amaierako ziurtagiria bidali beharko du, ondorengo agiriekin batera:

● Eraikitze-proiektua («as built»), dagokion elkargo ofizial profesionalak oniritzia emanda duela. Plano-jokoa eta obra-fasean egindako aldaketek ebazpen honetan eta ebazpenaren oinarri diren

agirietan ezarritako baldintza eta eskakizunei dagokienez segurtasun-murrizketa ekartzen ez dutela adierazten duen justifikazioa. Halaber, obra bukatzean ezin ikusi diren elementuen eta euren ezaugarrien argazki-erreportajea egin beharko du, xehetasunen ikuspegiak eta planoan duten kokalekua azalduz, ikuspegi panoramiko orokor gisa.

● Zigilatze-segidaren landare-lurraren geruzaren gainazalaren plano topografikoa, UTM koordenatuetan eta kota absolutuetan.

● Eraikuntza-kalitatea kontrolatzeko eta bermatzeko programaren emaitzak. Programa horrek barne hartuko ditu eginiko lanak deskribatzen dituen memoria, emaitzak eta ondorioak laburbiltzen dituzten taulak barne; horrez gain, esparruko eta laborategiko emaitza analitiko guztiak jasotzen dituzten eranskinak (azken horien txosten osoak gehituko dira) eta laginketa-puntuen kokapena plano takimetrikoan.

e) Aurreko atalean adierazitako obra-amaierako ziurtagiria eta horri erantsitako agiriak Ingurumen Sailburuordetzari aurkeztu beharko zaizkio, horrek onar ditzan. Aurkeztutako agiriak egokiak direla ikusi eta egiaztapen-bisita egin ondoren, ingurumen-organoak isurketaren jarduera etetea, zigilatzearen bukaera eta itxi ondorengo aldia abiatzea onartuko du.

F) Hondakin geldo eta ez-arriskutsuen zabortegia itxi ondorengo baldintzak.

a) San Markos-eko Mankomunitatea, zabortegia ustiatzen duen erakundea den heinean, zabortegia itxi ondorengo mantentze-lanen eta kontrolaren arduraduna izango da, eta funtzio horietaz arduratuko den pertsonaren izena jakinarazi beharko dio ingurumen-organoari.

b) Posta-helbidea, telefonoa, faxa, posta elektronikoa edo edozein komunikabide eta kontaktu, edo itxi ondorengo kontrolaz arduratuko den pertsona aldatzen badira, zabortegiaren titularrak jakinarazi egin beharko du.

c) Itxi ondorengo kontrola eta zainketa-aldia 30 urtekoa izango da, zabortegiaren jarduera eten eta zigilatzea bukatzean den data onartzen den unetik kontatzen hasita. Ingurumen-organoak hala irizten badio, data hori aldatu ahal izango da, itxi ondorengo kontroletan barrena lortutako emaitzen arabera. Itxi ondorengo aldiari dagokionez, sustatzaileak horrela eskatuta, ingurumen-organoak emandako ebazpenaren bidez ezarriko dira itxi ondorengo aldiaren bukaera eta horren inguruan ezarritako betebeharren epe-betetzea. Aldez aurretik atal honetan ezarritako baldintzak betetzen direla egiaztatu beharko da.

d) San Markos-eko Mankomunitateak itxi ondorengo zainketa betetzen dela zaintzeaz arduratuko den enpresa izendatuko du. Enpresa hori zabortegiaren titularra ez baldin bada, titularrak enpresa hori gutxienez urtebeteko aldirako izendatuko du. Izendapen horren berri eman beharko zaio ingurumen-organoari, izendapena egin eta 15 eguneko epean, eta zabortegiaren titularraren ordezkariaren onarpen-sinadura, itxi ondorengo zainketaz arduratuko den enpresako ordezkariaren onarpen-sinadura eta titularrak emandako agirien zerrenda xehatua barne izango ditu. Zerrendak aipatu zabortegiari dagozkion administrazio-eskakizun guztiak eta zigilatzean eta ordura arteko itxi ondorengo zainketan zehar sortutako agiri tekniko guztiak jaso beharko ditu.

e) Itxi ondorengo aldian zehar kokapenean obrak edo/eta jarduerak egin nahi izanez gero, aldez aurretik ingurumen-organoaren baimena izan beharko da. Nolanahi ere, ingurumen-organoaren aurrean ziurtatu beharko da jarduera horiek ez dietela eragiten zigilatzearen osotasunari, perimetro-kanalen jardunari, itxi ondorengo kontrol-sistemaren egonkortasunari edo elementuei, eta pertsonentzat arrisku onartezina ez dakartela.

Xede horretarako, zigilatzean sortzen den zuhaitz- edo zuhaixka-landaredia ezabatu egingo da.

Inolaz ere ez da baimenduko zabortegia itxi ondorengo fasean barrena zabortegiaren zigilatzea bizilekurako erabiltzea. Halaber, ez da baimenduko inolako jarduketarik zigilatze-segidako ur garbien drainatze-geruzaren gainazaletik 50 cm baino gutxiagora hurbil dadin.

G) Lan-arriskuen prebentziorako baldintzak.

Zabortegiaren ustiapen, zigilatze eta itxi ondorengo aldian barrena, ezbeharrak gertatzea saihesteko eta horien ondorioak mugatzeko beharrezko neurriak hartu beharko dira; bereziki, Lan-arriskuen Prebentziorako azaroaren 8ko 31/1995 Legea eta legea garatzen duten erregelamenduzko xedapenak aplikatuz.

H) Ingurumena zaintzeko programa.

Ingurumena zaintzeko programa sustatzaileak aurkeztutako agirietan aurreikusitakoaren eta ondoko atal hauetan ezarritakoaren arabera gauzatu beharko da:

H.1.– Uren eta efluente likidoen kalitate-kontrola:

a) Isuritako uraren kalitatearen kontrola, lurpeko uren kontrolari, lixibiatuen kontrolari, eta gainazaleko uren kontrolari dagokionez, sustatzaileak aurkeztutako agirietan aurreikusitakoari jarraituz burutu beharko da.

Kontrolatu beharreko fluxua	Neurtu beharreko parametroak	Kontrolen maiztasuna	Kontrol mota
Hondakin ez-arriskutsuen gelaxkako lixibiatuak biltzeko kutxeta	Emaria, tenperatura, eroankortasun elektrikoa (CE), pH-a, SE, OEK, OEB_5, Cl^-, NH_4^+, NTK, Al, As, Cd, Cu, Cr^{6+}, Fe, Ni, Pb, Zn, Hg, CN^-, olioak eta koipeak, AOX, KOG eta fenolak	Hilerokoa	Kanpokoa
Geldoen zabortegiko lixibiatuen kutxeta	Emaria, tenperatura, eroankortasun elektrikoa (CE), pH-a, SE, OEK, OEB5, Cl^-, NH_4^+, NTK, Al, As, Cd, Cu, Cr^{6+}, Fe, Ni, Pb, Zn, Hg, CN^-, olioak eta koipeak, AOX, KOG eta fenolak	Hilerokoa	Kanpokoa
Lixibiatu gordinak isurtzeko kontrol-kutxeta (bi lixibiatuen nahasketa)	Emaria, tenperatura, eroankortasun elektrikoa (CE), pH-a, SE, OEK, OEB5, Cl^-, NH_4^+, NTK, Al, As, Cd, Cu, Cr^{6+}, Fe, Ni, Pb, Zn, Hg, CN^-, olioak eta koipeak, AOX, KOG eta fenolak	Hilerokoa	Kanpokoa
Ubideak euri-uren perimetro-kanalarekin bat egiten duten PM1 gainazaleko urak	Emaria, tenperatura, eroankortasuna, pH-a, SE eta OEK, OEB_5, NH_3, NO_3, Cl^-, Ni, Pb, Cu, Cd, Cr, Zn.	Hilerokoa	Kanpokoa
Ubideak euri-uren perimetro-kanalarekin bat egiten duten PM2 gainazaleko urak	Emaria, tenperatura, eroankortasuna, pH-a, SE eta OEK, OEB5, NH_3, NO_3, Cl^-, Ni, Pb, Cu, Cd, Cr, Zn.	Hilerokoa	Kanpokoa
Geldoen zabortegitik uretan behera dauden PM3 gainazaleko urak	Emaria, tenperatura, eroankortasuna, pH-a, SE eta OEK, OEB5, NH_3, NO_3, Cl^-, Ni, Pb, Cu, Cd, Cr, Zn.	Hilerokoa	Kanpokoa
S1 piezometroko lurpeko urak	Emaria, tenperatura, eroankortasuna, pH-a, SE eta OEK, OEB5, NH_3, NO_3, Cl^-, Ni, Pb, Cu, Cd, Cr, Zn.	Hilerokoa	Kanpokoa
S2 piezometroko lurpeko urak	Emaria, tenperatura, eroankortasuna, pH-a, SE eta OEK, OEB5, NH_3, NO_3, Cl^-, Ni, Pb, Cu, Cd, Cr, Zn.	Hilerokoa	Kanpokoa
Uretan gorako piezometroko lurpeko urak	Emaria, tenperatura, eroankortasuna, pH-a, SE eta OEK, OEB5, NH_3, NO_3, Cl^-, Ni, Pb, Cu, Cd, Cr, Zn.	Hilerokoa	Kanpokoa

b) Kanpoan egiten den kontrol bakoitza, laginak hartzea zein ondorengo analisia, «erakunde laguntzaile» batek egin eta egiaztatuko du, eta goiko puntuetan aipatutako parametroak hartuko dira kontuan. Sustatzaileak isurketa-puntu bakoitzeko lagin hartu berri baten analisia aurkeztu beharko du gutxienez; lagina 24 orduko ur-emariarekiko proportzionala izango da, edo bestela, lagin puntual esanguratsua.

Isurketen kontrolen emaitzak Ingurumen Sailburuordetzara bidaliko dira laginak hartzen direnetik hilabete bateko (1) epean.

c) Laginketak kutsatzaile gehien sortzen den aldietan egingo dira beti.

d) Isurketak baimenean jarritako baldintza guztiak betetzen dituela ulertuko da, D.3.3.3 ataleko parametro guztiek ezarritako mugak betetzen badituzte.

e) Beren konposizioagatik saneamendu-kolektorera ezin isuri diren eta kudeatzaile baimenduak bilduko dituen lixibiatuen kasuan, hilero, Ingurumen Organoari, gutxienez, egindako lixibiatuen garraio bakoitzaren alderdi hauek jasoko dituen egiaztagiria bidaliko dio:

- Zabortegiko lixibiatuen irteera-data.
- Garraiatutako lixibiatuen bolumena.
- Lixibiatuen helmuga.
- Lixibiatuak garraiatu dituen enpresa.
- Garraioa egin duen ibilgailuaren matrikula.

f) Aztertu beharreko parametroak eta maiztasuna alda daitezke lortutako emaitzen arabera ingurumen-organoak horrela irizten badio edo sustatzaileak proposamen justifikatua egiten badu.

- Hala eta guztiz ere, uren politikaren arloan lehentasunezko substantzien zerrenda onartzen duen eta 2000/60/EE Zuzentaraua aldatzen duen 2001eko azaroaren 20ko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2455/2001/EE Erabakian zehaztutako lehentasunezko substantzien zerrenda zehaztu beharko da 3 hilabeteko epean zabortegi zaharreko eta egungo zabortegiko lixibiatuetan, goialdeko urei ez dagokien garaian laginak hartuz. Kanpoan egiten den kontrol bakoitza, laginak hartzea zein ondorengo analisia, «erakunde laguntzaile» batek egin eta egiaztatuko du, eta goiko puntuetan aipatutako parametroak hartuko dira kontuan. Sustatzaileak isurketa-puntu bakoitzeko lagin hartu berri baten analisia aurkeztu beharko du gutxienez; lagina 24 orduko ur-emariarekiko proportzionala izango da, edo bestela, lagin puntual esanguratsua.

H.2.– Airearen kalitate-kontrola.

a) Isuri atmosferikoak kontrolatzea.

Zabortegiko gasaren neurketa tximinia guztien barnealdean egingo da. Neurtu beharreko parametroak, gutxienez, hauek izango dira: CO, CO_2, N_2, O_2, H_2S eta CH_4, presio atmosferikoa eta airearen tenperatura barnealdean neurtuko dira eta ustiapenean zehar hileroko maiztasunarekin.

Urtero, kanpo-erakunde batek neurketa bat egingo du.

b) Immisio atmosferikoen kontrola.

Aireko immisioa neurtzeko kanpainak egingo dira jardueraren ustiapenean zehar. Sustatzaileak jarduerak inguruan duen eraginaren jarraipena egiteko proposamena landu eta Ingurumen Sailbu-

ruordetza honetan aurkeztuko du, bertan onartzeko. Proposamenak neurketa-kabinen kokalekuen azterketa jasoko du, baita horien mantentze-lanen plana ere.

Laginketa-kanpaina horiek ahalik eta egoera okerrena duen aldean egingo dira. Lan-ingurunearen gaineko eragina baloratuko da, eragiketa eta lan guztietan, sarbideetan, isurketa-eremuan, etab. laginketa eginez.

H.3.– Zarataren kontrola.

Zarataren neurketa-kanpaina egingo da, ebazpen honen E.3.6 atalean jasotako mugak betetzen direla ziurtatzearren.

H.4.– Isuri-ontziaren topografiaren kontrola (ustiapena, itxiera eta itxiera ondokoa).

Isuri-ontziaren topografiaren kontrola oinarrizko proiektuan, zehazki IV. liburukian, Ingurumena zaintzeko planean jasotako proposamenaren arabera burutu beharko da. Kontrol topografiko horren emaitzek hauek jasoko dituzte: neurtzeko bitarteko eta materialak, gertatutako gorabeherak, aldi bateko bilakaeraren grafikoak, erregistratutako datuak euskarri elektronikoan (kalkulu-orria), eta horien interpretazioa.

Urtero zabortegiaren betetze-lanen plano topografiko eguneratu bat egin beharko da, zabortegiaren mugak, zabortegiaren eremu zigilatua, eta azken urtean hondakinak utzi diren zabortegiaren eremua zehaztuta dituena, eta horien azalerak eta zabortegiaren gainazalean aldaketak egin diren datak adierazita.

H.5.– Datu meteorologikoen bilketa.

Ustiapen-aldian eta zabortegia itxi ondorengoan, parametro meteorologikoen gaineko kontrola egingo da. Horretarako, San Markos-eko Mankomunitateak biltegiko instalazioen eremuaren barruan kokatutako erregistro automatikoko euri-neurgailua izango du. Bildutako datuak Meteorologiako Euskal Zerbitzuko Ereñozuko (Hernani-Gipuzkoa) estazio meteorologiko automatikokoekin osatuko dira.

Erregistro automatikoko euri-neurgailuan prezipitazioa kontrolatuko da, eta estazio meteorologiko automatikoan, tenperatura, haizearen indarra eta norabidea, hezetasuna, presioa eta eguzki-erradiazioa.

H.6.– Zabortegiaren balantze hidrikoa.

Kanpoko erakunde batek urtero zabortegiaren balantze hidriko bat egin beharko du. Horretarako, Ereñozuko (Hernani-Gipuzkoa) estazioan erregistratutako lixibiatuen emariaren datuak eta erregistratutako datu meteorologikoak eta zabortegiaren gainazalean sortzen diren aldaketen plano topografikoak (zigilatutako eremuak, isurketa-eremuak, eta abar.) erabiliko dira. Tokiko oinarrizko datuak definitzeke dagoen lisimetro bat instalatuz kalkulatuko dira.

Itxi ondorengo aldiko lehen balantzeak zabortegiaren portaera hidrodinamikoaren analisia barne izango du, erregistratutako emariaren eta eroankortasun elektrikoaren datuetatik eta itxi aurreko eta ondorengo balantze hidrikoaren alderaketatik abiatuta.

H.7.– Tresneriaren kontrola.

Urtero tresnen kontrolean espezializatutako enpresa batek txostena egingo du neurri zuzentzaileei buruz eta prozesuak eta ingurunearen kalitatea kontrolatzeko sistemei buruz.

H.8.– Jardueraren adierazleak.

Jardueraren adierazleen inguruan, txosten bat egin eta Ingurumen Sailburuordetzari igorriko zaio. Txosten horretan jardueraren adierazleak kalkulatu eta kontrolatuko dira, sustatzaileak aurkeztutako 2007ko apirilaren 27ko Ingurumeneko Baimen Bateratua eskatzeko Informazio Gehigarriaren Eskakizunari Erantzuna agirian dagoen proposamenaren arabera, eta zehazki, sustatzaileak aurkeztutako 9. atalean (Ingurumena zaintzeko programa) adierazten denaren arabera.

H.9.– Emaitzak kontrolatu eta bidaltzea.

Ingurumena zaintzeko programa osatzen duten analisi eta txostenen emaitzak behar bezala erregistratuko dira, eta Ingurumen Sailburuordetzara bidaliko dira. Ingurumena zaintzeko programaren emaitzak urtean behin bidaliko dira, beti martxoaren 30a baino lehen, ingurumenean aditua den erakunde aske batek egindako txostenarekin batera. Txosten horretan adieraziko dira neurri zuzentzaileen funtzionamendua, eta prozesuak eta ingurunearen kalitatea kontrolatzeko sistemak. Emaitzen analisia ere adieraziko da, eta bereziki aipatuko dira aldi horretan gertatu diren gorabehera garrantzitsuenak, horien ustezko arrazoiak eta konponbideak, eta baita laginketen xehetasunak ere, aurretik zehaztu ez baldin badira.

Halaber, zabortegian hondakinak uzteagatik urte horretan kobratuko diren prezioak jasoko ditu txostenak, hondakin mota edo taldeka xehatuta.

Hauek aurkeztu behar dira urtero:

a) Bukatutako urteari dagokion balantze ekonomikoa, kontzeptuak xehatuz, bereziki aurreikusi gabekoak.

b) B atalean aipatutako finantza-azterketaren eguneratzea. Bertan, diru-sarrerak, aurreikusitako obren gastuak, ustiaketa-gastuak, hala badagokio bermeen zenbatekoaren eguneratzea, eta abar jaso beharko dira. Horrela, justifikatuta egon behar da diru-sarrerek zabortegiaren instalazioa, ustiapena, zigilatzea eta itxi ondorengo mantentze-lanetatik sortutako gastuak estaliko dituztela.

c) Emaitza ekonomikoen arabera, zabortegiaren instalazioa, ustiapena, zigilatzea eta itxi ondorengo mantentze-lanetatik sortutako gastuak finantzatzeko helburua zein neurritan bete den adieraziko da, eta negatiboa izanez gero, hartu beharreko neurriak zehaztuko dira.

Publikoak ez diren zabortegien kasuan, ekitaldi bakoitzaren hasieran bermeen zenbatekoa eguneratu beharko da, kontsumoko prezioen indize (KPI) nazionala aplikatuz.

Halaber, hurrengo urtean egin beharreko obren eta hondakinek bete beharreko eremuen aurreikuspena gehituko da, gutxi gorabeherako kotak, aurreko urtean utzitako hondakinen bolumenaren kalkulua, soberakin-gaitasuna eta urte horretan utzitako hondakinen batez besteko dentsitatea adieraziz.

Isuritako uraren eta gainazaleko eta lurrazpiko uren kalitatearen kontrolari buruzko emaitzak, gainera, hiru hilean behin bidaliko dira Uraren Euskal Agentziara (Gipuzkoako, Bizkaiko edo Arabako Ordezkaritza).

H.10.– Ingurumena zaintzeko programaren agiri bategina.

Sustatzaileak ingurumena zaintzeko programaren agiri bategina landu beharko du, 2006ko abenduko ingurumeneko baimen bateratuaren eskaeraren agirietan, 2007ko apirileko ingurumeneko baimen bateratuaren eskaeraren agiri gehigarrietan eta ebazpen honetan proposatutako betekizunak bilduz. Programa horrek hauek zehaztu beharko ditu: kontrolatu beharreko parame-

troak, parametro bakoitzerako erreferentzia-mailak, analisi edo neurketen maiztasuna, laginketak eta analisiak egiteko teknikak, eta laginak hartzeko puntuen kokapen xehatua. Halaber, dagokion aurrekontua ere barne hartu beharko du.

Ingurumena zaintzeko programan jardueraren ohiko adierazleak eta horiek analizatzeko sistematika sartuko dira, ingurumen-hobekuntza ziurtatzeko enpresak berak ezarritako neurri eta mekanismoen eraginkortasuna egiaztatzeko (ingurumen-adierazleak).

I) Ezohiko egoeretarako prebentziozko neurriak eta jardunerako baldintzak.

I.1.– Jarduera etetea, itxi ondorengo aldia bukatuta.

Jarduera lege hauen aplikazio-esparrukoa da: lurzorua ez kutsatzeko eta kutsatutakoa garbitzeko otsailaren 4ko 1/2005 Legea (90.002 epigrafea «Hondakinak tratatzeko jarduerak»), eta kutsadura sor dezaketen jardueren zerrenda eta lurzoru kutsatuen adierazpenerako irizpide zein estandarrak ezartzen dituen urtarrilaren 14ko 9/2005 Errege Dekretua. Hori dela-eta, San Markos-eko Mankomunitateak hasiera eman beharko dio lurzoruaren kalitatearen adierazpenerako prozedurari, gehienez ere bi hilabeteko epean, jarduera behin betiko uzten duenetik kontatzen hasita, otsailaren 4ko 1/2005 Legeak 17.4 artikuluan xedatutakoaren arabera.

I.2.– Ezohiko jardunean aplikatzeko prebentziozko neurriak eta jarduketak.

Oinarrizko Proiektuan egindako proposamenean ezohiko egoeretan aplikatu beharreko prebentziozko neurriak eta jardunerako baldintzak zehazten dira. Horiez gain, ondorengo ataletan aipatzen diren baldintzak bete behar dira:

a) Ustiapenari buruzko eskuliburua eduki beharko da instalazioen egoera bermatzeko, batez ere ustekabeko jario edo ihesak daudenean kutsadura ekiditeko eskuragarri dauden baliabideei eta ezarritako segurtasun-neurriei dagokienez. Ihesak daudenean lurzorua babesteko hartu beharreko neurriak zehaztuko dira, eta zehatz adieraziko da hauei dagokien guztia: eraikuntzako materialak (iragazgaiztea), biltegiratzeko neurri bereziak (gai arriskutsuak), egon daitezkeen ihesak antzemateko neurriak edo gainbetetzerako alarma-sistemak, lantegiko kolektore-sarea zaindu eta garbitzekoak (sistematikoki garbitzeko beharra, maiztasuna, garbiketa mota), eta lurzoruaren gaineko jarioak biltzeko sistemak.

b) Aurreko paragrafoan adierazitako eskuliburuan aldizka egindako mantentze-lanak jasoko dira, eta antzemandako gorabeherak. Hobi septikoen kasuan, mantentze-garbiketa egokia egingo da beren errendimendu egokia bermatzeko eta aldizka, pilatutako solido eta lohiak kenduko dira.

c) Era berean, erregistro bat eduki behar da, eta bertan, aldizka egindako mantentze-lanen berri eman behar da, baita antzemandako gorabeherena ere.

d) Zabortegiaren perimetro-itxitura baldintza onetan mantenduko da.

e) Jarduerak eskatzen dituen gai lagungarri eta erregaiak ingurunera hedatzea galaraziko duten baldintzetan biltegiratuko dira.

f) Era berean, erregistro bat eduki behar da, eta bertan, aldizka egindako mantentze-lanen berri eman behar da, baita antzemandako gorabeherena ere.

g) Segurtasun-tarteei eta babes-neurriei dagokienez, egiaztatu egin beharko da biltegiratzeko instalazio horiek bete egiten dituztela produktu kimikoak biltegiratzeari buruz indarrean dagoen araudian ezarritako betebeharrak. Egiaztapen hori egiteko, Ingurumen Sailburuordetza honi aurkeztuko zaizkio eskumena duten erakundeek emandako egiaztagiriak.

h) Larrialdi-egoera sortzen denean, berehala eta eraginkortasunez jarduteko behar beste material eduki behar da: berriro ontziratzeko erreserbako edukiontziak, beharrezkoa izanez gero; gerta daitezkeen jarioei eusteko produktu xurgatzaile selektiboak, segurtasuneko edukiontziak, hesiak eta kaltetutako inguruneak isolatzeko seinaleztapen-elementuak eta babes pertsonalerako ekipamendu bereziak.

i) Hobi septikoaren sistemak garbitze- eta mantentze-lan egokia izango du errendimendu ona ziurtatzeko. Aldizka enpresa espezializatu batek erretiratuko ditu pilatutako solido eta lohiak, eta garbiketan arrastatutako solidoak ibilgura hustea saihestuko da.

j) Urtean behin instalazio horien garbiketaren eta mantentze-lanen fakturaren kopia bat bidaliko da.

k) Larrialdi-egoeretan, babes zibileko legeriari helduko zaio, eta bertan ezarritako betekizun guzti-guztiak bete beharko dira.

l) Ingurunearen edo jardueraren kontrolaren gainean kalteak eragin ditzakeen gorabehera edo ezohiko gertaeraren baten aurrean (besteak beste, ustekabeko isuria, isurtzeko muga-balioak gainditzea, edo zabortegiaren zigilatzearen edo itxi ondorengo sistemaren elementuren baten funtzionamenduari edo integritateari eragin diezaiokeen beste edozein), San Markos-eko Mankomunitateak gorabehera edo ezohiko gertaera horren berri eman beharko dio Ingurumen Sailburuordetzari eta Urumea Ibaiko Kolektorearen Erabiltzaileen Mankomunitateari.

m) Gertakari edo arazo larriren bat edo ustekabeko isuriren bat egonez gero, SOS Deiak, Udalari eta Urumea Ibaiko Kolektorearen Erabiltzaileen Mankomunitateari jakinarazi beharko zaie berehala. Ondoren, eta gehienez ere 48 orduko epean, ezbeharrari buruzko txosten xehatua bidali beharko zaio Ingurumen Sailburuordetzari. Txosten horretan, gutxienez, datu hauek agertuko dira:

- Gertakari mota.
- Gertakaria non, zergatik eta zer ordutan gertatu zen.
- Iraupena.
- Ustekabeko isurketa bada, emaria eta isuritako gaiak.
- Mugak gaindituz gero, isuriei buruzko datuak.
- Eragindako kalteen balioespena.
- Hartutako neurri zuzentzaileak.
- Prebentziozko neurriak berriro gerta ez dadin.
- Prebentziozko neurriak eraginkortasunez aplikatzeko ezarritako epeak.

n) Instalazioek suteen aurkako babesari buruz indarrean dagoen araudian ezarritako betekizunak betetzen dituztela egiaztatu egin beharko da. Egiaztapen hori egiteko, Ingurumen Sailburuordetza honi aurkeztuko zaizkio eskumena duten erakundeek emandako egiaztagiriak.

J) Baldin eta arautegi berria indarrean sartzeak, edo barneratzen diren sistemen egitura eta funtzionamenduari buruzko ezagutza berri esanguratsuetara egokitu beharrak hori egitea gomendatzen badute, neurri babesle zein zuzentzaileak eta ingurumena zaintzeko programa aldarazi ahal izango dira, bai neurtu behar diren parametroen kasuan, bai neurketaren aldizkakotasuna eta aipatutako parametroek hartu behar duten tarteari dagozkion mugen kasuan. Era berean, neurri

babesle zein zuzentzaileak eta ingurumena zaintzeko programa jardueraren sustatzaileak hala eskatuta edo ofizioz aldaraz daitezke, ingurumena zaintzeko programan lortutako emaitzetan oinarrituta.

K) Urtean behin San Markos-eko Mankomunitateak Ingurumen Sailburuordetzari jakinarazi ko dizkio atmosferara eta uretara egindako isuriei eta sortu dituen hondakinei buruzko datuak, E-PRTR-Euskadi botatako eta eskualdatutako kutsagarrien Europako Inbentarioa landu eta eguneratzeko, E-PRTR Araudiko eta ingurumeneko baimen bateratuetako isurketen gaineko informazioa ematea arautzen duen apirilaren 20ko 508/2007 Errege Dekretuari jarraituz.

Informazio hori ekitaldi horren hurrengo martxoaren 31 baino lehen bidali beharko da. Informazioa Ingurumenari buruzko Adierazpenaren (IA) bidez gauzatuko da, hori baita kanpoko erakundeek eta Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailak ingurumen-informazioa batak besteari elektronikoki emateko ardatza. Informazio-trukaketa horren funtsa Ingurumenari buruzko Adierazpenari (IA) dagozkion ingurumeneko datu teknikoak eta prozedurakoak sartzean datza, IKS-L03 Sistemako erakundeentzako bertsioaren bidez (www-eper-euskadi.net web-orrian eskuragarri): Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Saileko Ingurumen-informazioa Kudeatzeko Sistema. Datu horiek guztiek Ingurumenean Eragina duten Jardueren Euskal Autonomia Erkidegoko Erregistroa osatuko dute, Europako Ingurumen Agentziaren Erregistrora (Europako E-PRTR Erregistroa) egiten diren informazio-bidalketen oinarri dena.

Halaber, ebazpen honetan aurreikusitako gainerako informazio-trukeak aipatutako Ingurumenari buruzko Adierazpenaren bidez gauzatuko dira, ahal izanez gero.

Informazio hori agerikoa izango da, uztailaren 18ko 27/2006 Legearen xedapenekin bat etorriz. Lege horren bidez informazioa eskuragarri izateko, herritarren partaidetzarako eta ingurumen-gaietan justizia eskura izateko eskubideak arautzen dira (2003/4/EE eta 2003/2005/EE Zuzentarauak jasotzen ditu). Horrez gain, uneoro bermatu beharko da datu pertsonalak babesteko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan ezarritakoa betetzen dela.

L) Ingurumeneko baimen bateratu honen mendeko instalazioan egindako aldaketek bat etorri beharko dute kutsaduraren prebentzio eta kontrol integratuari buruzko uztailaren 1eko 16/2002 Legeak 10.3 artikuluan ezarritako komunikazio-erregimenarekin. Hori horrela, ingurumeneko beste baimen bateratu bat beharko da aldaketak funtsezkoak direnean.

Era berean, aplikatzeko izango da otsailaren 27ko 3/1998 Legeak, Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurumena Babestekoak, 50. artikuluan ezarritakoa. Artikulu horren arabera, baldin eta proiektuaren aldaketak edo handitzeak ingurumenaren gainean eragin negatiboak sor baditzake, ingurumenaren gaineko eraginaren baterako azterketaren prozeduraren mende jarriko da.

Hirugarrena.– Ebazpen hau eraginkorra izan dadin, aurretik Ingurumen Sailburuordetzari agiri bidez egiaztatu beharko zaio ebazpen honetako bigarren ataleko puntu hauetan ezarritako baldintzak betetzen direla: A (erantzukizun zibileko asegurua); B (finantza-azterketa); D.2.1 (obra-zuzendaritza eta iragazgaiztearen kalitate-kontrolerako enpresa izendatzea); D.3.4.1.e) (hondakin arriskutsuak onartzeko agiria); D.3.4.1.l) (hondakin arriskutsuak erregistratzeko eredua); D.3.4.2 (hondakin ez-arriskutsu bakoitzaren sortutako kantitatea) D.3.4.2.c) (hondakin ez-arriskutsuak onartzeko agiria); D.3.4.2.e) (hondakin ez-arriskutsuak erregistratzeko eredua); D.3.5 (lurzorua babesteko neurrien prozedurak); D.3.8 (hondakin ez-arriskutsuen gelaxkan gasak biltzeko eta husteko proposamena); H.5 (erregistro automatikoko euri-neurgailua); H.10 (ingurumena zaintzeko programaren agiri bategina); I.2.a) (ustiapeneko eskuliburua) I.2.h) (larrialdi-egoeran berehala jarduteko material erabilgarrien ezaugarriak eta kuantifikazioa); I.2.n) (suteen aurkako babesari buruzko araudia betetzearen egiaztagiria); eta gainera, ebazpen

honetan dagokien ataletan baimendu edo eskatu diren aurreikusitako obrak edo instalazioak burutzeko epeen aitorpen espresa aurkeztu beharko da.

Halaber, baimen hau indarrean jarri aurretik, ingurumen-organo honi atxikitako zerbitzu teknikoen ikuskapen-bisitan egiaztatu beharko da instalazioak aurkeztutako proiektuaren arabera eta ebazpen honetan ezarritakoarekin bat etorrita eraiki eta hornitu direla. Horretarako, aipatutako ikuskapen-bisitaren aurretik, sustatzaileak Ingurumen Sailburuordetza honetan aurkeztu beharko du baldintza horiek betetzen direla egiaztatzen duen agiria, teknikari aditu batek eginda.

Atal honetako baldintza guztiak betetzeko 6 hilabeteko epea ezarri da, ingurumeneko baimen bateratua eraginkorra dela adierazteko Ingurumen Sailburuordetzak emandako ebazpen hau jakinarazten den biharamunetik kontatzen hasita.

Adierazitako baldintzak betetzen direla ziurtatzean, ebazpena emango da eta, horren bitartez, ingurumeneko baimen bateratua eraginkortzat aitortuko da.

Laugarrena.– Ingurumeneko baimen bateratu hau 8 urteko epean egongo da indarrean, aurreko atalean ezarritakoaren arabera ondorioak dauzkan egunetik kontatzen hasita. Epe hori igarota, baimena berritu egin beharko da eta, hala badagokio, jarraian datozen aldietarako eguneratu.

Ingurumeneko baimen bateratua amaitu baino hamar hilabete lehenago, titularrak baimena berritzeko eskaera egin beharko du, uztailaren 1eko 16/2002 Legearen 25. artikuluan xedatutakoa betez.

Bosgarrena.– Edonola ere, ingurumeneko baimen bateratua ofizioz aldatu ahal izango da uztailaren 1eko 16/2002 Legearen 26. artikuluan ezarritako kasuak aintzat hartuta.

Seigarrena.– San Markos-eko Mankomunitateak ebazpen honen xede den hondakin geldo eta ez-arriskutsuen gordetegi kontrolatuari dagokion titulartasun-aldaketarik eginez gero, aldaketa hori jakinarazi beharko du, Ingurumen Sailburuordetzak onar dezan. Edonola ere, zabortegiak eta bere instalazio osagarriek okupatutako lursailaren titulartasuna transmititzen bada edo hori edukitzea bertan behera uzten bada, ebazpen honetan aurreikusitako betebeharrak betetzen jarraitu beharko da. Edozein titulartasun-aldaketarik eginez gero (salmenta, lagapena, etab.) aldaketa hori Ingurumen Organoari jakinarazi beharko zaio, formalizazioa egin eta hilabeteko epea baino lehen, eta Ingurumen Organoak aldaketa hori onartu behar du agirien bidez, dagokion ebazpena igorriz.

Zazpigarrena.– Baimen honek balioa galduko du kausa hauek gertatzen direnean:

● Epearen barruan ez egiaztatzea ebazpen honetako hirugarren atalean ingurumeneko baimen bateratuak ondorioak izan ditzan ezarritako baldintzak betetzen direla, interesdunak behar bezala justifikatuz epea luzatzeko eskatzen ez badu.

● Baimena indarrean jartzen dela adierazten duen ebazpenean xedatutakoak.

Zortzigarrena.– Ebazpen honen edukia jakinaraztea San Markos-eko Mankomunitateari, Donostiako Udalari, ingurumeneko baimen bateratua emateko prozeduran parte hartu duten erakundeei, eta gainerako interesdunei.

Bederatzigarrena.– Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzeko agintzea.

Hamargarrena.– Ebazpen honek ez du agortzen administrazio-bidea; horrenbestez, gora jotzeko errekurtsoa aurkez daiteke Ingurumen eta Lurralde Antolamenduko sailburuaren aurrean, hilabeteko epean, ebazpen hau jakinarazi eta hurrengo egunean kontatzen hasita, hori guztia

Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 114. artikuluarekin eta ondorengoekin bat etorriz (urtarrilaren 13ko 4/1999 Legeak aldatu zuen lege hori).

Vitoria-Gasteiz, 2008ko apirilaren 30a.

Ingurumeneko sailburuordea,
IBON GALARRAGA GALLASTEGUI.

I. ERANSKINA

HONDAKIN ONARGARRIAK

Tratatutako hondakinak. Aurretiaz tratamendurik jaso ez duten hondakinen kasuan, horiek baliotzea teknikoki, ekonomikoki edo ingurumenari dagokionez bideragarria ez dela modu egokian justifikatu beharko da.

Hondakin onargarriak	
Hondakin mota	EHZ kodea
Meategi eta harrobien prospekzioaren, erauzketaren eta mineralen tratamendu fisiko eta kimikoen hondakinak	01
Mineralen erauzketaren hondakinak	01 01
Mineral metalikoen erauzketaren hondakinak	01 01 01
Mineral ez-metalikoen erauzketaren hondakinak	01 01 02
Mineral metalikoen eraldatze fisiko eta kimikoaren hondakinak	01 03
01 03 04 eta 01 03 05 kodeetan aipatutakoen bestelakoak diren material antzuak	01 03 06
01 03 07 kodeak aipatutakoen bestelakoak diren hautsaren eta hondar xehearen hondakinak	01 03 08
Beste kategoria batean zehaztu gabeko hondakinak	01 03 99
Mineral ez-metalikoen eraldatze fisiko eta kimikoaren hondakinak	01 04
01 04 07 kodean aipatutakoen bestelakoak diren legar eta arroka birrinduen hondakinak	01 04 08
Hondar eta buztinaren hondakinak	01 04 09
01 04 07 kodeak aipatutakoen bestelakoak diren hautsaren eta hondar xehearen hondakinak	01 04 10
Mineralen ikuzketa eta garbiketaren material antzuak eta bestelako hondakinak, 01 04 07 eta 01 04 11 kodeetan aipatutakoen bestelakoak direnak	01 04 12
Harria ebaki eta zerratzearen hondakinak, 01 04 07 kodean aipatutakoen bestelakoak direnak	01 04 13
Beste kategoria batean zehaztu gabeko hondakinak	01 04 99
Zulaketen lohiak eta bestelako hondakinak	01 05
Bario-gatzak dituzten zulaketen lohiak eta bestelako hondakinak, 01 05 05 eta 01 05 06 kodeetan aipatutakoen bestelakoak direnak	01 05 07
Kloro-gatzak dituzten zulaketen lohiak eta bestelako hondakinak, 01 05 05 eta 01 05 06 kodeetan aipatutakoen bestelakoak direnak	01 05 08
Beste kategoria batean zehaztu gabeko hondakinak	01 05 99
Nekazaritza, baratzezaintza, akuikultura, basogintza, ehiza eta arrantzaren hondakinak; elikagaiak prestatu eta lantzearen ondorioz sortutako hondakinak	02
Nekazaritza, baratzezaintza, akuikultura, basogintza, ehiza eta arrantzaren hondakinak	02 01
Ikuzketa eta garbiketaren lohiak	02 01 01
Animalien ehunen hondakinak	02 01 02
Landareen ehunen hondakinak	02 01 03
Plastikoen hondakinak (paketatzeak salbu)	02 01 04
Basogintzaren hondakinak	02 01 07
02 01 08 kodeak aipatutakoen bestelakoak diren hondakin agrokimikoak	02 01 09
Hondakin metalikoak	02 01 10
Beste kategoria batean zehaztu gabeko hondakinak	
Haragia, arraina eta animalia-jatorria duten bestelako elikagaiak prestatu eta lantzearen ondorioz sortutako hondakinak	02 02
Ikuzketa eta garbiketaren lohiak	02 02 01
Animalien ehunen hondakinak	02 02 02
Kontsumorako edo lanketarako egokiak ez diren materialak	02 02 03
Efluenteen in situ tratamenduaren lohiak	02 02 04
Beste kategoria batean zehaztu gabeko hondakinak	02 02 99
Frutak, barazkiak, zerealak, olio jangarriak, kakaoa, kafea, tea eta tabakoa prestatu eta lantzearen; kontserben ekoizpenaren; legamia eta legamia-estraktuaren ekoizpenaren; melazeen prestaketa eta hartziduraren ondorioz sortutako hondakinak	02 03
Ikuzi, garbitu, zuritu, zentrifugatu eta bereiztearen ondorioz sortutako lohiak	02 03 01
Kontserbatzaileen hondakinak	02 03 02

Hondakin onargarriak	
Hondakin mota	EHZ kodea
Disolbatzaile bidezko erauzketaren hondakinak	02 03 03
Kontsumorako edo lanketarako egokiak ez diren materialak	02 03 04
Efluenteen in situ tratamenduaren lohiak	02 03 05
Beste kategoria batean zehaztu gabeko hondakinak	02 03 99
Azukrea elaboratzearen ondorioz sortutako hondakinak	02 04
Erremolatxa ikuzi eta garbitzetik sortutako lurra	02 04 01
Zehaztapenik ez duen kaltzio karbonatoa	02 04 02
Efluenteen in situ tratamenduaren lohiak	02 04 03
Beste kategoria batean zehaztu gabeko hondakinak	02 04 99
Esnekien industriaren hondakinak	02 05
Kontsumorako edo lanketarako egokiak ez diren materialak	02 05 01
Efluenteen in situ tratamenduaren lohiak	02 05 02
Beste kategoria batean zehaztu gabeko hondakinak	02 05 99
Okintza eta gozogintza industriaren hondakinak	02 06
Kontsumorako edo lanketarako egokiak ez diren materialak	02 06 01
Kontserbatzaileen hondakinak	02 06 02
Efluenteen in situ tratamenduaren lohiak	02 06 03
Beste kategoria batean zehaztu gabeko hondakinak	02 06 99
Edari alkoholdun eta ez alkoholdunen ekoizpenetik sortutako hondakinak (kafea, tea eta kakaoa salbu)	02 07
Lehengaien ikuzketa, garbiketa eta erredukzio mekanikoaren ondorioz sortutako hondakinak	02 07 01
Alkoholak destilatzearen ondorioz sortutako hondakinak	02 07 02
Tratamendu kimikoaren hondakinak	02 07 03
Kontsumorako edo lanketarako egokiak ez diren materialak	02 07 04
Efluenteen in situ tratamenduaren lohiak	02 07 05
Beste kategoria batean zehaztu gabeko hondakinak	02 07 99
Zura eraldatzearen, eta taula eta altzariak, paper-pasta, papera eta kartoia ekoiztearen ondorioz sortutako hondakinak.	03
Zura eraldatzearen, eta taula eta altzariak ekoiztearen ondorioz sortutako hondakinak	03 01
Azal eta kortxoaren hondakinak	03 01 01
Beste kategoria batean zehaztu gabeko hondakinak	03 01 99
Zura babesteko tratamenduen hondakinak	03 02
Bestelako kategoriatan zehaztu gabeko zuraren kontserbatzaileak	03 02 99
Paper-pasta, papera eta kartoia sortu eta eraldatzearen hondakinak	03 03
Papera birziklatzearen ondorioz sortutako tinta-kentze lohiak	03 03 05
Paper eta kartoi hondakinetatik sortutako pasta-hondarrak, mekanikoki bereiziak	03 03 07
Birziklatzera bideratutako papera eta kartoia sailkatzetik sortutako hondakinak	03 03 08
Bereizketa mekanikoaren bidez lortutako zuntzen hondakinak eta zuntzen lohiak, eta karga- eta iztukadura-materialak	03 03 10
Efluenteen in situ tratamenduaren lohiak, 03 03 10 kodean zehaztutakoen bestelakoak direnak	03 03 11
Beste kategoria batean zehaztu gabeko hondakinak	03 03 99
Larru-, ilelarru- eta ehun-industrien hondakinak	04
Larru- eta ilelarru-industrien hondakinak	04 01
Kareztaduraren larru-barrenak	04 01 01
Kareztaduraren hondakinak	04 01 02
Kromoa duten lohiak, bereziki efluenteen in situ tratamendutik eratorritakoak	04 01 06
Kromorik ez duten lohiak, bereziki efluenteen in situ tratamendutik eratorritakoak	04 01 07
Jantzigintza eta akaberen hondakinak	04 01 09
Beste kategoria batean zehaztu gabeko hondakinak	04 01 99

Hondakin onargarriak	
Hondakin mota	EHZ kodea
Ehungintza-industriaren hondakinak	04 02
Material konposatuen hondakinak (ehunki inpregnatuak, elastomeroak, plastomeroak)	04 02 09
04 02 14 kodean zehaztutakoen bestelakoak diren akaberen hondakinak	04 02 15
04 02 16 kodean zehaztutakoen bestelakoak diren koloreztatzaile eta pigmentuak	04 02 17
Efluenteen in situ tratamenduaren lohiak, 04 02 19 kodean zehaztutakoen bestelakoak direnak	04 02 20
Prozesatu gabeko ehun-zuntzen hondakinak	04 02 21
Prozesatutako ehun-zuntzen hondakinak	04 02 22
Beste kategoria batean zehaztu gabeko hondakinak	04 02 99
Petrolio-finketaren, gas naturalaren garbiketaren eta ikatzaren tratamendu pirolitikoaren hondakinak	05
Petrolio-finketaren hondakinak	05 01
Galdarak elikatzeko uretatik datozen lohiak	05 01 13
Hozte-zutabeen hondakinak	05 01 14
Beste kategoria batean zehaztu gabeko hondakinak	05 01 99
Ikatzaren tratamendu pirolitikoaren hondakinak	05 06
Hozte-zutabeen hondakinak	05 06 04
Beste kategoria batean zehaztu gabeko hondakinak	05 06 99
Gas naturalaren garbiketa eta garraiatzearen hondakinak	05 07
Sufrea duten hondakinak	05 07 02
Beste kategoria batean zehaztu gabeko hondakinak	05 07 99
Prozesu kimiko organikoen hondakinak	06
Azidoen fabrikazioaren, formulazioaren, banaketaren eta erabileraren (FFDU) hondakinak	06 01
Beste kategoria batean zehaztu gabeko hondakinak	06 01 99
Baseen FFDU hondakinak	06 02
Beste kategoria batean zehaztu gabeko hondakinak	06 02 99
Gatzen eta euren soluzioen eta oxido metalikoen FFDU hondakinak	06 03
Gatz solidoak eta soluzioak, 06 03 11 eta 06 03 13 kodeetan aipatutakoen bestelakoak direnak	06 03 14
06 03 15 kodean zehaztutakoen bestelakoak diren oxido metalikoak	06 03 16
Metalak dituzten hondakinak, 06 03 kodean zehaztutakoen bestelakoak direnak	06 04
Beste kategoria batean zehaztu gabeko hondakinak	06 04 99
Efluenteen in situ tratamenduaren lohiak	06 05
Efluenteen in situ tratamenduaren lohiak, 06 05 02 kodean aipatutakoen bestelakoak direnak	06 05 03
Sufrea duten produktu kimikoen, sufrearen prozesu kimikoen eta desulfurazio-prozesuen FFDU hondakinak	06 06
Sulfuroak dituzten hondakinak, 06 06 02 kodean aipatutakoen bestelakoak direnak	06 06 03
Beste kategoria batean zehaztu gabeko hondakinak	06 06 99
Halogenoen eta halogenoen prozesu kimikoen FFDU hondakinak	06 07
Beste kategoria batean zehaztu gabeko hondakinak	06 07 99
Silizioaren eta bere eratorrien FFDU hondakinak	06 08
Klorosilanoak dituzten hondakinak	06 08 02
Beste kategoria batean zehaztu gabeko hondakinak	06 08 99
Fosforoa duten produktu kimikoen eta fosforoaren prozesu kimikoen FFDU hondakinak	06 09
Fosforoaren zepak	06 09 02
06 09 03 kodeak aipatutakoen bestelakoak diren erreakzioko kaltzio-hondakinak	06 09 04
Beste kategoria batean zehaztu gabeko hondakinak	06 09 99
Nitrogenoa duten produktu kimikoen eta nitrogenoaren eta ongarrien fabrikazioaren prozesu kimikoen FFDU hondakinak	06 10
Beste kategoria batean zehaztu gabeko hondakinak	06 10 99
Pigmentu ez-organikoen edota opakutzaileen fabrikazioaren hondakinak	06 11

Hondakin onargarriak	
Hondakin mota	EHZ kodea
Titanio dioxidoaren produkziotik eratorritako erreakzioko kaltzio-hondakinak	06 11 01
Beste kategoria batean zehaztu gabeko hondakinak	06 11 99
Prozesu kimiko ez-organikoen hondakinak, beste kategoria batean zehaztu gabeak	06 13
Ikatz-beltza	06 13 03
Beste kategoria batean zehaztu gabeko hondakinak	06 13 99
Prozesu kimiko organikoen hondakinak	07
Oinarrizko produktu kimiko organikoen fabrikazioaren, formulazioaren, banaketaren eta erabileraren (FFDU) hondakinak	07 01
Efluenteen in situ tratamenduaren lohiak, 07 01 11 kodean zehaztutakoen bestelakoak direnak	07 01 12
Beste kategoria batean zehaztu gabeko hondakinak	07 01 99
Plastikoen, kautxu sintetikoaren eta zuntz artifizialen FFDU hondakinak	07 02
Efluenteen in situ tratamenduaren lohiak, 07 02 11 kodean zehaztutakoen bestelakoak direnak	07 02 12
Plastikoaren hondakinak	07 02 13
Gehigarrietatik sortutako hondakinak, 07 02 14 kodean zehaztutakoen bestelakoak direnak	07 02 15
Silikona duten hondakinak	07 02 16
Beste kategoria batean zehaztu gabeko hondakinak	07 02 99
Tindu eta pigmentu organikoen FFDU hondakinak (06 11 azpikapitulukoak salbu)	07 03
Efluenteen in situ tratamenduaren lohiak, 07 03 11 kodean zehaztutakoen bestelakoak direnak	07 03 12
Beste kategoria batean zehaztu gabeko hondakinak	07 03 99
Produktu fitosanitario organikoen (02 01 08 eta 02 01 09 kodeetakoak salbu), egurraren kontserbatzaileen (03 02 azpikapitulukoak salbu) eta beste biozida batzuen FFDU hondakinak	07 04
Efluenteen in situ tratamenduaren lohiak, 07 04 11 kodean zehaztutakoen bestelakoak direnak	07 04 12
Beste kategoria batean zehaztu gabeko hondakinak	07 04 99
Farmaziako produktuen FFDU hondakinak	07 05
Efluenteen in situ tratamenduaren lohiak, 07 05 11 kodean zehaztutakoen bestelakoak direnak	07 05 12
07 05 13 kodean zehaztutakoen bestelakoak diren hondakin solidoak	07 05 14
Beste kategoria batean zehaztu gabeko hondakinak	07 05 99
Koipe, xaboi, detergente, desinfektatzaile eta kosmetikoen FFDU hondakinak	07 06
Efluenteen in situ tratamenduaren lohiak, 07 0 11 kodean zehaztutakoen bestelakoak direnak	07 06 12
Beste kategoria batean zehaztu gabeko hondakinak	07 06 99
Kimika finaren emaitza diren produktu kimikoen eta beste kategoria batean zehaztu ez diren produktu kimikoen FFDU hondakinak	07 07
Efluenteen in situ tratamenduaren lohiak, 07 07 11 kodean zehaztutakoen bestelakoak direnak	07 07 12
Beste kategoria batean zehaztu gabeko hondakinak	07 07 99
Estalduren (pinturak, bernizak eta beira-esmalteak), itsasgarrien, zigilatzaileen eta inprimatzeko tinten fabrikazio, formulazio, banaketa eta erabilpenaren (FFDU) hondakinak	08
FFDU hondakinak eta pintura eta berniza kentzea edo desugerketarenak	08 01
08 01 11 kodean zehaztutakoen bestelakoak diren pintura- eta berniz-hondakinak	08 01 12
08 01 13 kodean zehaztutakoen bestelakoak diren pintura- eta berniz-lohiak	08 01 14
08 01 17 kodean zehaztutakoen bestelakoak diren pintura eta bernizaren kentze edo desugerketaren hondakinak	08 01 18
Beste kategoria batean zehaztu gabeko hondakinak	08 01 99
Bestelako estalduren FFDU hondakinak (zeramikazko materialak barne)	08 02
Estaldurazko hondar xeheen hondakinak	08 02 01
Beste kategoria batean zehaztu gabeko hondakinak	08 02 99
Inprimatzeko tinten FFDU hondakinak	08 03
08 03 12 kodean zehaztutakoen bestelakoak diren tinta-hondakinak	08 03 13
08 03 14 kodean zehaztutakoen bestelakoak diren tinta-lohiak	08 03 15
08 03 17 kodean zehaztutakoen bestelakoak diren inprimatzeko tonerren hondakinak	08 03 18
Beste kategoria batean zehaztu gabeko hondakinak	08 03 99
Itsasgarri eta zigilatzaileen FFDU hondakinak (iragazgaiztearen produktuak barne)	08 04

Hondakin onargarriak	
Hondakin mota	EHZ kodea
08 04 09 kodean zehaztutakoen bestelakoak diren itsasgarri eta zigilatzaileen hondakinak	08 04 10
08 04 11 kodean zehaztutakoen bestelakoak diren itsasgarri eta zigilatzaileen lohiak	08 04 12
Beste kategoria batean zehaztu gabeko hondakinak	08 04 99
Argazki-industriaren hondakinak	09
Argazki-industriaren hondakinak	09 01
Pila eta metagailurik ez duten erabilera bakarreko kamerak	09 01 10
Pilak edo metagailuak dituzten erabilera bakarreko kamerak, 09 01 11 kodean zehaztutakoen bestelakoak direnak	09 01 12
Beste kategoria batean zehaztu gabeko hondakinak	09 01 99
Prozesu termikoen hondakinak	10
Zentral elektriko eta bestelako errekuntza-plantetako hondakinak (19. kapitulua izan ezik)	10 01
Etxeko errautsak, zepak eta galdara-hautsa	10 01 01
Ikatzaren errauts hegalariak	10 01 02
Turba eta zuraren errauts hegalariak	10 01 03
Erreakzioko kaltzio hondakinak, forma solidoan, errekuntza-gasen desulfuraziotik sortutakoak	10 01 05
Erreakzioko kaltzio hondakinak, lohi forman, errekuntza-gasen desulfuraziotik sortutakoak	10 01 07
Etxeko errautsak, zepak eta koerrausketatik sortutako galdararen hautsa, 10 01 14 kodean zehaztutako bestelakoak direnak	10 01 15
Koerrausketatik sortutako errauts hegalariak, 10 01 17 kodean zehaztutakoen bestelakoak direnak	10 01 17
Gas-arazketatik sortutako hondakinak, 10 01 18 kodean zehaztutakoen bestelakoak direnak	10 01 19
Efluenteen in situ tratamenduaren lohiak, 10 01 20 kodean zehaztutakoen bestelakoak direnak	10 01 21
Jariatutako ohantzeetako hareak	10 01 24
Ikatzezko zentral termoelektrikoetako erregaien biltegiratze eta prestakuntzatik sortutako hondakinak	10 01 25
Hozte-uraren tratamenduaren hondakinak	10 01 26
Beste kategoria batean zehaztu gabeko hondakinak	10 01 99
Burdinaren eta altzairuaren industriaren hondakinak	10 02
Zepen tratamenduaren hondakinak	10 02 01
Gas-tratamenduaren hondakin solidoak, 10 02 07 kodean zehaztutakoen bestelakoak direnak	10 02 08
Ijezketatiko axala	10 02 10
Hozte-uraren tratamenduaren hondakinak, 10 02 11 kodean zehaztutakoen bestelakoak direnak	10 02 12
Gas-tratamenduaren iragazketa-lohi eta -opilak, 10 02 13 kodean zehaztutakoen bestelakoak direnak	10 02 14
Bestelako iragazketa-lohi eta -opilak	10 02 15
Beste kategoria batean zehaztu gabeko hondakinak	10 02 99
Aluminioaren termometalurgiaren hondakinak	10 03
Anodo zatiak	10 03 02
Alumina-hondakinak	10 03 05
10 03 15 kodean zehaztutakoak ez diren aparrak	10 03 16
Anodoen fabrikaziotik sortutako brea duten hondakinak, 10 03 17 kodean zehaztutakoen bestelakoak direnak	10 03 18
Gas-efluenteetatik sortutako partikulak, 10 03 19 kodean zehaztutakoak ez direnak	10 03 20
Bestelako partikulak eta hautsa (ehotze-hautsa barne), 10 03 21 kodean zehaztutakoen bestelakoak direnak	10 03 22
Gas-tratamenduko hondakin solidoak, 10 03 23 kodean zehaztutakoen bestelakoak direnak	10 03 24
Gas-tratamenduaren iragazketa-lohi eta -opilak, 10 03 25 kodean zehaztutakoen bestelakoak direnak	10 03 26
Hozte-uraren tratamenduaren hondakinak, 10 03 27 kodean zehaztutakoen bestelakoak direnak	10 03 28
Gatzezko zepen eta galauts beltzen tratamenduaren hondakinak, 10 03 29 kodean zehaztutakoen bestelakoak direnak	10 03 30
Beste kategoria batean zehaztu gabeko hondakinak	10 03 99
Berunaren termometalurgiaren hondakinak	10 04
Hozte-uraren tratamenduaren hondakinak, 10 04 09 kodean zehaztutakoen bestelakoak direnak	10 04 10
Beste kategoria batean zehaztu gabeko hondakinak	10 04 99
Zinkaren termometalurgia hondakinak	10 05
Lehen eta bigarren mailako produkzioaren zepak	10 05 01
Bestelako partikulak eta hautsak	10 05 04
Olioak ez dituzten hozte-uraren tratamenduaren hondakinak	10 05 09
10 05 10 kodean zehaztutakoak ez diren galautsak eta aparrak	10 05 11
Beste kategoria batean zehaztu gabeko hondakinak	10 05 99
Kobrearen termometalurgiaren hondakinak	10 06
Lehen eta bigarren mailako produkzioaren zepak	10 06 01
Lehen eta bigarren mailako produkzioaren galautsak eta aparrak	10 06 02
Bestelako partikulak eta hautsak	10 06 04

Hondakin onargarriak	
Hondakin mota	EHZ kodea
Hozte-uraren tratamenduaren hondakinak, 10 06 09 kodean zehaztutakoen bestelakoak direnak	10 06 10
Beste kategoria batean zehaztu gabeko hondakinak	10 06 99
Zilar, urre eta platinoaren termometalurgiaren hondakinak	10 07
Lehen eta bigarren mailako produkzioaren zepak	10 07 01
Lehen eta bigarren mailako produkzioaren galautsak eta aparrak	10 07 02
Gas-tratamenduaren hondakin solidoak	10 07 03
Bestelako partikulak eta hautsak	10 07 04
Gas-tratamenduaren iragazketa-lohiak eta -opilak	10 07 05
Hozte-uraren tratamenduaren hondakinak, 10 07 07 kodean zehaztutakoen bestelakoak direnak	10 07 08
Beste kategoria batean zehaztu gabeko hondakinak	10 07 99
Beste kategoria batean zehaztu gabeko hondakinak	10 08
Partikulak eta hautsa	10 08 04
Bestelako zepak	10 08 09
10 08 10 kodean zehaztutakoak ez diren galautsak eta aparrak	10 08 11
Anodoen fabrikaziotik sortutako karbonoa duten hondakinak, 10 08 12 kodean zehaztutakoen bestelakoak direnak	10 08 13
Anodo zatiak	10 08 14
Gas-efluenteetako partikulak, 10 08 15 kodean zehaztutakoak ez direnak	10 08 16
Olioak ez dituzten hozte-uraren tratamenduaren hondakinak	10 08 20
Beste kategoria batean zehaztu gabeko hondakinak	10 08 99
Burdinazko piezen galdaketaren hondakinak	10 09
Labeko zepak	10 09 01
10 09 05 kodean zehaztutakoak ez diren isurketa gabeko galdaketako arrak eta moldeak	10 09 06
10 09 07 kodean zehaztutakoak ez diren isurketadun galdaketako arrak eta moldeak	10 09 08
Gas-efluenteetatik sortutako partikulak, 10 09 109 kodean zehaztutakoak ez direnak	10 09 10
10 09 11 kodean zehaztutakoak ez diren beste partikulak	10 09 12
10 09 13 kodean zehaztutakoen bestelakoak diren hondakin-lokiak	10 09 14
Pitzadurak adierazteko agenteen hondakinak, 10 09 15 kodean zehaztutakoen bestelakoak direnak	10 09 16
Beste kategoria batean zehaztu gabeko hondakinak	10 09 99
Burdinarik gabeko piezen galdaketaren hondakinak	10 10
Labeko zepak	10 10 03
Isurketa gabeko galdaketako arrak eta moldeak, 10 10 05 kodean zehaztutakoak ez direnak	10 10 06
10 10 07 kodean zehaztutakoak ez diren isurketadun galdaketako arrak eta moldeak	10 10 08
Gas-efluenteetako partikulak, 10 10 09 kodean zehaztutakoak ez direnak	10 10 10
10 10 11 kodean zehaztutakoak ez diren beste partikulak	10 10 12
10 10 13 kodean zehaztutakoen bestelakoak diren hondakin-lokiak	10 10 14
Pitzadurak adierazteko agenteen hondakinak, 10 10 15 kodean zehaztutakoen bestelakoak direnak	10 10 16
Beste kategoria batean zehaztu gabeko hondakinak	10 10 99
Beiraren eta bere eratorrien fabrikazioaren hondakinak	10 11
Beira-zuntzaren materialen hondakinak	10 11 03
Hauts-partikulak	10 11 05
Egosi aurreko nahasketa-prestaketen hondakinak, 10 11 09 kodean zehaztutakoen bestelakoak direnak	10 11 10
10 11 11 kodean zehaztutakoen bestelakoak diren beira-hondakinak	10 11 12
Beiraren leuntze eta esmerilaketan sortutako lohiak, 10 11 13 kodean zehaztutakoen bestelakoak direnak	10 11 14
Errekuntza-gasen tratamenduaren hondakin solidoak, 10 11 15 kodean zehaztutakoen bestelakoak direnak	10 11 16
Gas-tratamenduaren iragazketa-lohi eta -opilak, 10 11 17 kodean zehaztutakoen bestelakoak direnak	10 11 18
Efluenteen in situ tratamenduaren hondakin solidoak, 10 11 19 kodean zehaztutakoen bestelakoak direnak	10 11 20
Beste kategoria batean zehaztu gabeko hondakinak	10 11 99
Zeramika-produktuak, adreiluak, teilak eta eraikuntzarako materialak fabrikatzearen hondakinak	10 12
Nahasketen prestaketaren hondakinak, egosteko prozesuaren aurretik	10 12 01
Partikulak eta hautsa	10 12 03
Gas-tratamenduaren iragazketa-lohiak eta -opilak	10 12 05
Molde baztertuak	10 12 06
Zeramika, adreilu, teila eta eraikuntzarako materialen hondakinak (egosteko prozesuaren ondoren)	10 12 08
Gas-tratamenduaren hondakin solidoak, 10 12 09 kodean zehaztutakoen bestelakoak direnak	10 12 10
Beiratzearen hondakinak, 10 12 11 kodean zehaztutakoen bestelakoak direnak	10 12 12
Efluenteen in situ tratamenduaren lohiak	10 12 13
Beste kategoria batean zehaztu gabeko hondakinak	10 12 99
Beste kategoria batean zehaztu gabeko hondakinak	10 13
Nahasketen prestaketaren hondakinak, egosteko prozesuaren aurretik	10 13 01
Karearen kaltzinazio eta hidratazioaren hondakinak	10 13 04

Hondakin onargarriak	
Hondakin mota	EHZ kodea
Partikulak eta hautsa (10 13 12 eta 10 13 13 kodeak izan ezik)	10 13 06
Gas-tratamenduaren iragazketa-lohiak eta -opilak	10 13 07
Zementuarekin konposatutako materialen hondakinak, 10 13 10 kodean zehaztutakoak ez direnak	10 13 11
Gas-tratamenduaren hondakin solidoak, 10 13 12 kodean zehaztutakoen bestelakoak direnak	10 13 13
Hormigoi-hondakinak eta hormigoi-lohiak	10 13 14
Beste kategoria batean zehaztu gabeko hondakinak	10 13 99
Azal-tratamendu kimikoaren eta metalen eta bestelako materialen estalduraren hondakinak; burdinarik gabeko hidrometalurgiaren hondakinak	11
Azal-tratamendu kimikoaren eta metalen eta bestelako materialen (esaterako, galbanizazio-prozesuak, zinkaren bidezko estaldura-prozesuak, desugertze-prozesuak, grabaketa, fosfatazioa, koipegabetze alkalinoa eta anodizazioa) estalduraren hondakinak	11 01
Iragazketa-lohi eta -opilak, 11 01 09 kodean zehaztutakoen bestelakoak direnak	11 01 10
11 01 13 kodean zehaztutakoen bestelakoak diren koipegabetzearen hondakinak	11 01 14
Beste kategoria batean zehaztu gabeko hondakinak	11 01 99
Burdinarik gabeko prozesu hidrometalurgikoen hondakinak	11 02
Elektrolisi urtsuen prozesuetarako anodoen produkzioaren hondakinak	11 02 03
Kobrearen hidrometalurgiaren prozesuen hondakinak, 11 02 05 kodean zehaztutakoen bestelakoak direnak	11 02 06
Beste kategoria batean zehaztu gabeko hondakinak	11 02 99
Tenplatze-prozesuen lohiak eta solidoak	11 03
Berotan galbanizatzeko prozesuen hondakinak	11 05
Galbanizazio-matak.	11 05 01
Zink-errautsak.	11 05 02
Bestelako kategoriatan zehaztu gabeko hondakinak.	11 05 99
Metalen eta plastikoen azal-tratamendu fisiko eta mekanikoaren eta moldekatzearen hondakinak	12
Azal-tratamendu kimikoaren eta metalen eta bestelako materialen estalduraren hondakinak; burdinarik gabeko hidrometalurgiaren hondakinak	12 01
Burdinazko metalen karraka-hautsak eta txirbilak	12 01 01
Burdinazko metalen hautsa eta partikulak	12 01 02
Burdinarik gabeko metalen karraka-hautsak eta txirbilak	12 01 03
Burdinarik gabeko metalen hautsa eta partikulak	12 01 04
Plastikoaren txirbilak eta bizarrak	12 01 05
Soldaduraren hondakinak	12 01 13
12 01 14 kodean zehaztutakoen bestelakoak diren mekanizazio-lohiak.	12 01 15
12 01 16 kodean zehaztutakoen bestelakoak diren granailatze edo zorrotaden hondakinak	12 01 17
Esmerilaketa-harri eta -material erabiliak, 12 01 20 kodean zehaztutakoen bestelakoak direnak	12 01 21
Beste kategoria batean zehaztu gabeko hondakinak	12 01 99
Ur eta lurrun bidezko koipegabetze-prozesuen hondakinak (11. kapitulua izan ezik)	12 03
Ontzi-hondakinak; bestelako kategorietan zehaztu gabeko xurgatzaileak, garbiketarako trapuak, iragazketarako materialak eta babeserako arropak	15
Xurgatzaileak, iragazketarako materialak, garbiketarako trapuak eta babeserako arropak	15 02
Xurgatzaileak, iragazketarako materialak, garbiketarako trapuak eta babeserako arropak, 15 02 02 kodean zehaztu gabekoak.	15 02 03
Zerrendaren beste kapitulu batean zehaztu gabeko hondakinak	16
Garraiobide desberdinen ibilgailuak (errepidean ez dabiltzan makinak barne) erabilera-epea bukatzear dutenak eta erabilera-epea bukatzear duten ibilgailuen desegitearen eta ibilgailuen mantentzearen hondakinak (13. eta 14. kapituluak eta 16 06 eta 16 08 azpikapituluetakoak salbu).	16 01
Erabiltzen ez diren pneumatikoak.	16 01 03
16 01 11 kodean zehaztutakoen bestelakoak diren balazta-zapatak.	16 01 12
Likidotutako gasen andelak	16 01 16
Bestelako kategoriatan zehaztu gabeko osagaiak	16 01 22
Beste kategoria batean zehaztu gabeko hondakinak	16 01 99
Ekipo elektriko eta elektronikoen hondakinak.	16 02
Baztertutako ekipoetatik kendutako osagaiak, 16 02 15 kodean zehaztutakoen bestelakoak direnak	16 02 16
Espezifikaziorik ez duten produktuen eta erabiltzen ez diren produktuen loteak	16 03
16 03 03 kodean zehaztutakoen bestelakoak diren hondakin ez-organikoak.	16 03 04
16 03 05 kodean zehaztutakoen bestelakoak diren hondakin organikoak.	16 03 06
Lehergaien hondakinak	16 04
Presiozko ontzietako gasak eta baztertutako produktu kimikoak	16 05
Baztertutako produktu kimikoak, 16 05 06, 16 05 07 edo 16 05 08 kodeetan zehaztu gabekoak	16 05 09
Garraio- eta biltegiratze-zisternen garbiketaren eta upelen garbiketaren hondakinak (05. eta 13. kapituluetakoak izan ezik)	16 07

Hondakin onargarriak	
Hondakin mota	EHZ kodea
Bestelako kategoriatan zehaztu gabeko hondakinak.	16 07 99
Katalizatzaile erabiliak	16 08
Ohantze jariakorreko cracking katalitikotik sortutako katalizatzaile erabiliak (16 08 07 kodekoak izan ezik)	16 08 04
Substantzia oxidatzaileak	16 09
Labe eta erregogorren estalduren hondakinak	16 11
Karbono bidezko estaldurak eta erregogorrak, 16 11 01 kodean zehaztutakoen bestelakoak diren prozesu metalurgikoetatik eratorriak	16 11 02
Prozesu metalurgikoetatik datozen bestelako estaldurak eta erregogorrak, 16 11 03 kodean zehaztutakoen bestelakoak direnak	16 11 04
Karbono bidezko estaldurak eta erregogorrak, 16 11 05 kodean zehaztutakoen bestelakoak diren prozesu metalurgikoetatik eratorriak	16 11 06
Eraikuntzaren eta eraispenaren hondakinak (kutsatutako eremuetan hondeatutako lurra barne)	17
Nahasketa bituminosoak, harrikatz-alkaterna eta alkaterna duten bestelako produktuak	17 03
Nahasketa bituminosoak harrikatz-alkaterna ez dutenak	17 03 02
Lurra (eremu kutsatuetan hondeatutakoa barne), harriak eta drainatze-lohiak	17 05
Lurra eta harriak	17 05 04
Drainatze-lohiak	17 05 06
Trenbideen balastoak	17 05 08
Amiantoa duten isolamendurako materialak eta eraikuntza-materialak	17 06
17 06 01 eta 17 06 03 kodeetan zehaztutakoen bestelakoak diren isolamendurako materialak.	17 06 04
Igeltsuzko eraikuntza-materialak	17 08
Igeltsuzko eraikuntza-materialak, 17 06 01 eta 17 08 01 kodeetan zehaztutakoen bestelakoak direnak	17 08 02
Hondakinak tratatzeko instalazioen, hondakin-urak tratatzeko kanpoko planten eta gizakiaren kontsumorako eta industriaren erabilerarako uren prestakuntzaren hondakinak.	19
Hondakinen errausketa edo pirolisiaren hondakinak	19 01
19 01 11 kodean zehaztutakoak ez diren labearen hondoaren eta zepen errautsak	19 01 12
19 01 13 kodean zehaztutakoak ez diren errauts hegalariak	19 01 14
19 01 15 kodean zehaztutakoaren bestelakoa den galdara-hautsa	19 01 16
19 01 17 kodean zehaztutakoen bestelakoak diren pirolisi-hondakinak	19 01 18
Jariatutako ohantzeetako hareak.	19 01 19
Bestelako kategoriatan zehaztu gabeko hondakinak.	19 01 99
Hondakinen tratamendu fisiko eta kimikoen hondakinak (kromo-kentzea, zianuro-kentzea eta neutralizazioa barne).	19 02
Aldez aurretik nahastutako hondakinak, soilik hondakin ez-arriskutsuez konposatuak	19 02 03
Tratamendu fisiko eta kimikoen lohiak, 19 02 05 kodean zehaztutakoen bestelakoak.	19 02 06
Erregai-hondakinak, 19 02 08 eta 19 02 09 kodeetan zehaztutakoen bestelakoak.	19 02 10
Bestelako kategoriatan zehaztu gabeko hondakinak.	19 02 99
Hondakin beiraztatuak eta beiraztapenaren hondakinak	19 04
Hondakin beiraztatuak	19 04 01
Beste kategoria batean zehaztu gabeko hondakin-urak tratatzeko instalazioen hondakinak	19 08
Baheketaren hondakinak	19 08 01
Desondartzearen hondakinak	19 08 02
Industriako hondakin-uren bestelako tratamenduetatik sortutako lohiak, 19 08 13 kodean zehaztutakoen bestelakoak direnak.	19 08 14
Beste kategoria batean zehaztu gabeko hondakinak	19 08 99
Gizakiaren kontsumorako edo industriaren erabilerarako uren prestaketaren hondakinak	19 09
Lehen mailako iragazketaren eta baheketaren hondakin solidoak	19 09 01
Uraren klarifikazioaren lohiak	19 09 02
Deskarbonatazioaren lohiak	19 09 03
Ikatz aktibo erabilia	19 09 04
Erretxina ioi-trukatzaile saturatuak edo erabiliak	19 09 05
Ioi-trukatzaileen birsorkuntzaren disoluzioak eta lohiak	19 09 06
Beste kategoria batean zehaztu gabeko hondakinak	19 09 99
Metalak dituzten hondakinak zatitzetik sortutako hondakinak	19 10
Zatitzearen zati arinak (fluff-light) eta hautsa, 19 10 03 kodean zehaztutakoen bestelakoak direnak.	19 10 04
19 10 05 kodean zehaztutakoen bestelakoak diren zatiak.	19 10 06
Olioen birsorkuntzaren hondakinak.	19 11
Efluenteen in situ tratamenduaren lohiak, 19 11 05 kodean zehaztutakoen bestelakoak direnak	19 11 06
Bestelako kategoriatan zehaztu gabeko hondakinak.	19 11 99
Hondakinen tratamendu mekanikoaren hondakinak (esaterako, sailkapena, birrinketa, konpresioa, peletizazioa), beste kategoria baten zehaztu gabeak	19 12

Hondakin onargarriak	
Hondakin mota	EHZ kodea
Mineralak (esaterako, harea, harriak)	19 12 09
Hondakinen tratamendu mekanikoaren ondorioz sortutako bestelako hondakinak (material-nahasketak barne), 19 12 11 kodean zehaztutakoen bestelakoak.	19 12 12
Lurzoruen eta lurpeko uren berreskurapenaren hondakinak	19 13
19 13 01 kodean zehaztutakoen bestelakoak diren lurzoruen berreskurapenaren hondakin solidoak	19 13 02
19 13 03 kodean zehaztutakoen bestelakoak diren lurzoruen berreskurapenaren lohiak	19 13 04
19 13 05 kodean zehaztutakoen bestelakoak diren lurrazpiko uren berreskurapenaren lohiak	19 13 06
Udal-hondakinak (etxeko hondakinak eta denda, industria eta erakundeetatik sortutako hondakin asimilagarriak), gaika jasotako zatiak barne	20
Pinturak, tintak, itsasgarriak eta erretxinak, 20 01 27 kodean zehaztutakoen bestelakoak direnak.	20 01 28
20 01 29 kodean zehaztutakoen bestelakoak diren detergenteak.	20 01 30
Beste kategorietan zehaztu gabeko bestelako frakzioak	20 01 99
Parke eta lorategien hondakinak (hilerrietako hondakinak barne)	20 02
Lurra eta harriak	20 02 02
Bestelako hondakin ez-biodegradagarriak	20 02 03